



2012-06-04
ASTELEHENA
367. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Osasun arloari dagokionez, medikamentu larregi kontsumitzen dugu"

Pedro Etxeberria
Gipuzkoako erretiratuen idazkaria | 7

Herri Eskolaren urtemuga paella erraldoiaz ospatu zuten | 4



San Juanen usainean, haurrak hasi dira entsegu lanetan | 14



Jende asko Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketan | 29

Txorimaloen babesean, Ferixan

Bero galanta egin arren, jende asko ibili zen Eskoriatzako kaleetan jarritako artisau eta baserritarren postuetan | 16



Gaztetxo koadrila zapatu goizean, Eskoriatzan, txorimaloetako baten azpian. Guztira 31 taldek hartu zuten esku txorimalo lehiaketan. | JULIO CALLEJA

Adituen esanetan dirua, oraingoz, seguruago dago bankuan etxean baino

Bankuko aurrezkien etorkizunaren gaineko kezka areagotu egin da herritarrongan. Hala, Goienak bi aditurengana jo du ekonomiazko hainbat gairen gainean galdetzeko; MUko irakasle Alvaro Ispizua, eta ADICAE Euskadiko kide Lucia Fernandez. | 2

Bera Bera eta Durangaldea abilenak errugbian

Bi talde horiek gailendu ziren Nazioartekoan | 22



Bera Berako jokalaria baloiaz. | J CALLEJA

Herritarren babesa eta bazkideen ekarpenak behar ditu Aramaioko Irikiñ taldeak | 20


%10 eko
deskontua



► Zoaz 32. orrialdera.

Dirua, oraingoz, seguruago dago bankuan etxean baino

- ▶ Aurrezkiak ateratzea ez dute gomendatzen adituek
- ▶ Bankuekin "exijenteago" izateko dio ADICAEk



Bankiaren sukurtsal bat. | BANKIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Korralitoa egongo dela, eurotik kanpo geratuko direla Espainia eta Hego Euskal Herria, Europak Espainia interbenitu edo erreskatatu egingo duela eta murrizketa gehiago etorriko direla... finantza-krisia agintarien eta bankuen elitetik herritarron mailara eta ahotara jaitsi da azken asteotan, inoiz baino gehiago. Bankuko aurrezkien etorkizunaren gaineko beldurra edo, behintzat, kezka igartzen da herritarrrongan.

Erantzunak topatzea ez da erraza, denetarik iritziak daude -eta. Aldizkari honek bi adituri galdetu die, Mondragon Unibertsitateko irakasle Alvaro Ispizuari, batetik, eta ADICAE Euskadi -bankuen, aurrezki kutxen eta aseguru-etxeen bezeroen elkarte-; euren esanetan, oraingoz behintzat, ez dago dirua bankutik ateratzeko arrazoirik. Euskal Herrian errota dauden finantza-erakundeek ere lasai egoteko dei egin dute.

Alvaro Ispizua irakaslearen esanetan, "segurtasun aldetik, dirua ondo dago banketxean". Joan den astean hainbat komunikabidetan argitaratu zuen artikuluan esan zuen bezala, "korralitorik ez" dela egongo esaten

digu, izan ere, "inori ez zaio komeni Espainia edo Italia jaustea".

ADICAE Euskadiko ordezkari Lucia Fernandez esanetan, korralitoa egongo den edo ez galdetuta, "ADICAE ez da inor horrelako aurreikuspenak egiteko, Ekonomia ministroak ez eta Europako Batasunak ez dakite-eta zer egin". Baina gomendio hau egiten die ADICAEk erabiltzaileei: "Euren eskubideak aldarrikatu eta erantzukizunak exijitu ditzatela. Ez diegu gomendatzen dirua ateratzea; baina ez dugu ahaztu behar kontsumitzaileek nahi dutena egiteko eskubidea dutela". Izan ere, "bistakoa da ez digute-

la behar adina berme eskaini erakunde finantzarioekin fidatu gaitetzen". Kontsumitzaileak "mobilizazio ekintzetan parte hartzera" deitzen dituzte.

Espainiakoen antzerakoak

Patxi Lopez lehendakariak egubakoitzean bertan esan zuen "Bankia denon arazoa" dela. Euskal Herria ez dago bankuen krisiaren eraginetik kanpo.

ADICAEko bozeramailearen esanetan, "kontsumitzaileen ikuspegitik, kutxen eta bankuen euskal bezeroek estatuko gainerakoekin arazo berberak dituzte: gehiegikeriez betetako hipoteka-maileguak,

lur-klausulak, etxebizitza kentzea -Gipuzkoan, 2011n, 350 izan dira halako kasuak- eta aurrezpenarekin lotutako produktuek kaltetutako milaka lagun. Beste gauza bat da euskal kutxa garrantzitsuenak ondo egotea finantza aldetik, eta adreiluaren mendekotasun txikiagoa izatea". Hori bai, elkarre horrek azpimarratzen duenez, banku eta kutxa askok ez dute hondoratze "Bankia efektu" beharrik, "denek oso lan txarra" egin dutelako.

Alvaro Ispizua iritziz, "banku eta kutxek ez dute hainbeste arazorik eta ez dute galdu hainbeste diru negozio inmo-

liario espekulatiboetan. Hala ere, Espainia merkatu garrantzitsua da Euskal Herriarentzat eta estatuko eragina nabaritzen dugu. Atzerrira begira gure bankuak Espainiakoen antzerakoak ikusten dituzte eta finantzaketako arazo parekoak aurkitzen ditugu Europako banku arteko merkatuan".

Murrizketa gehiago datoz

Edozer gertatzen dela ere, etorkizun hurbila ilun dator, eta gerrikoa estutzen jarraitu beharko dugu. Mondragon Unibertsitateko irakasleak honela ikusten du gertatuko dena: "Zerga igoe-

ESANAK

"Bankiari lagundu behar badiote, baldintza berdintasuna eskatzen diet"

MARIO FERNANDEZ
KUTXABANK-eko PRESIDENTEA

"Bankia denon arazoa da; hari laguntzearen alde nago, baina egia jakinarazi dezatela"

PATXI LOPEZ
LEHENDAKARIA

"Segurtasun aldetik, gure dirua ondo dago bankuan; ez da korralitorik egongo"

ALVARO ISPIZUA
IRAKASLEA

"Euskadin, banku eta kutxen erabiltzaileek estatu osokoen arazo berbera daukate"

LUCIA FERNANDEZ
ADICAE EUSKADI ELKARTEKO KIDEA

2012
2013

OK

Lanerako gertu!

HETEL

CAP LAGUNA

lanbidez

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

Izen-ematea

Maiatzaren 28tik
Ekainaren 5era

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



rak eta gastu murrizketak egongo dira eta neurri horiek hartu eta gero Europako laguntzak onartuko dira". Izan ere, "Grezia egoera larriago batean zegoen eta ajuste handiagoa behar zuten, baina Espainia handiegia da eta gure defizit publikoa finantzatzea

ez da oso erraza. Horregatik, arazoaren konponbidea barrutik irten behar da nagusiki, kanpoko laguntzak mugatuak izango baitira".

Bestalde, Espainiako eta Euskal Herriko banku-sarea ez du arriskuan ikusten, izan ere, bi

konsultorak eta bi auditorek bankaren aktibo toxikoak identifikatu eta "konfiantza-arazoa" konponduko da. Hala ere, "banku batzuk itxi egin beharko dira eta geratzen diren bankuek sukurtsalen soberakina itxi egin beharko dute, marjina hobetzeko".

Bankiaren krisia eta horren ondorioak, labur-labur azalduta

ZER GERTATU DA BANKIAREKIN?

Diru-zulo handia duela eta galtzen jarraitzen zuela deskubritu zen: bere matrizarik, BFAk, 3.300 milioi galdu zituen iaz, eta Bankia Taldeak, ia 3.000. Espainiako Gobernuak dirua sartzea erabaki zuen. Baina diru-kopuru handia behar du.

DIRUA BANKUTIK ATERA BEHARKO NUKE?

Adituen esanetan, ez. Espainiako banka solbentea da, orokorrean. Horrez gain, dirua etxean gordetzen badugu, ez dago hain seguru, eta, gainera, galtzen badugu, ez gaitu inongo erakunderik babesten.

Bestalde, kontsumitzaileen elkarteek dei egiten dute "ez fidatzeko" bankuek eskaintzen dutenekin, eta eurekin "exijenteago" izateko.

ZER DA KORRALITOA?

Argentinan horrela deitu zitzaion 2007teko abenduan eman zen aginduari: bankutik dirua ateratzea mugatu egin zen. Hain zuzen, beldurrak eraginda, banketxeek porrot egitea galarazi nahi zen. Neurri horrek urte bete iraun zuen.

NIRE AURREZKIAK BABESTUTA DAUDE?

Bai. Gordailuen Berme Fondoak 100.000 euro arteko aurrezki-fondoak bermatzen edo babesten ditu, pertsona eta erakunde bakoitzeko.

ZEINTZUK DIRA FINANTZA ARAZO LARRIENAK?

Alvaro Ispizuaren esanetan, "arazoan sustraia lehiakortasun faltan dago. Produktibitatea igo behar da edo soldatak jaitsi. Produktibitatea eta esportazioak hobetzen badira, bide onean egongo gara".

ETA ORAIN, ZER?

Ispizuaren iritziz, "zergak handitu eta gastuak txikituko dira. Gero, Europako laguntzak onartuko dira". Beraz, Espainia ez da eurotik irtengo. Epe luzera, baina, "euroko erakundeak aldatu behar dira. BCEk beste banku zentralak bezala jokatu beharko du, eta honelako krisialdian, dudarik gabe eta bilera askorik gabe konpondu beharko du arazoa. Europako banku-sistema integratzeko, bankuen ikuskaritza eta deposituak bermatzeko fondoa Europan zentralizatu beharko da.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

BERGARAN:

IEPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai 1. Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Ate irekiak: Maiatzak 19, 11:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Mekanizazioa
- Administrazio kudeaketa
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak

■ Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Diseinua fabrikazio mekanikoan
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Automatizazioa eta robotika industrial
- Administrazioa eta finantzak
- Mekatronika industrial

■ Espezializazio Graduondokoa: Hotzeko estanzioa

- Sarbide frogarako prestaketa kiaseak
- Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Lanerako formazioa langile eta langabetuentzat ikastaroak
- Eskareren arabera formakuntza

OÑATIN:

RM Zuazola-Larraña Institutua
San Lorentzo z/g - 22 pk. Tel.: 943 78 21 50

Ate irekiak: Maiatzak 30, 18:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Mekanizazioa
- Mantenu-lan elektromekaniko
- Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza

■ GM sarbiderako prestaketa kiaseak:

- Euskara, Matematika eta Ingelesa

■ Langile eta langabetuentzat ikastaroak:

- Mekanizazioa, Mantenu lan Elektromekanikoak, Energia Berriztagarriak, Soldadura eta Kirol Ekintzetako Gidaritza

■ Praktikak Europan egiteko aukera



ARETXABALETAN:

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarria auzoa z/g - 22 pk. Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43

Ate irekiak: Maiatzak 24, 18:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta galdaragintza
- Karrozeria
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta (A ereduan)

■ Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Metal eraikuntzak (A/D ereduan)
- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (A ereduan, arratsalde)

■ Langile eta langabetuentzat ikastaroak



"ate gehiago irekitzen dizkizugu"



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra. • **MATRIKULA:** Uztailaren 5etik 11ra.

Maidor Elkoro | 'Hizkimizki.com' atariko koordinatzailea

"Euskal Herrian erabiltzen diren hizkuntza guztiak batzea da asmoa"

- ▶ Euskaraz ez dakitenak gure hizkuntzara erakartzeko tresna da *Hizkimizki*
- ▶ Webguneak hiztegitxoak sortzen ditu, 43 hizkuntzen arteko konbinazioak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Auzoko egitasmoaren baitan sortutako hizkuntza askotariko ataria da *hizkimizki.com*. Euskaratik urrun bizi diren herritarrak euskarara hurbiltzeko tresna.

Zer da 'hizkimizki.com'?

Euskaratik eta euskaraz sortutako tresna berria. Webgune horrek oinarritzko poltsikoko hiztegitxoak sortzen ditu 43 hizkuntzen arteko konbinazioak eginez, hau da, 1.806 oinarritzko hiztegi sortzen ditu. Euskaraz sortutako 300 hitz inguruko oinarritzko hitz sorta beste 42 hizkuntzatarara itzuli dugu eta aplikazio informatiko berria dela medio, hizkuntza guzti horiek binaka konbinatzeko aukera sortu dugu. Aplikazioak aukeratutako bi hizkuntzen arteko oinarritzko hiztegia maketatuta ematen du DinA4 batean inprimatu, tolestu eta poltsikoan sartzeko prest. Plataformak sortzen dituen konbinazioetarako, esan genezake lehen aldiz egiten direla, hizkuntzatariko asko lehen aldiz gurutzatu direla elkarrekin, esaterako, kichwa-Nepaliera, Sherpa hizkuntza-Tamazigha edo Fula-Islandiera.

Euskal Herrian berba egiten diren hizkuntza denak jaso nahi dituzue.

Euskal Herrian gaur egun 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta gure helburua guztiak jasotzea izan da. Eta hasi besterik ez gara egin! Gainera, Euskal Herrian hitz egiten ez diren hizkuntzen ekarpenak ere jaso ditugu; beraz, erroka areagotu egin dugu. 10 hizkuntzek munduko biztanleriaren %50 barneratzen dute, beste %50ak munduko 6000 hizkuntzatariko bat hitz egiten dute. Egoera horrek, munduko hizkuntza asko desagertzen arri-

kuan jartzen ditu eta Topagunean bat egiten dugun hizkuntza ekologiararen ikuspuntutik, hizkuntza guzti hauek babestea dagokigu.

Sinplea eta erabiltzeko erraza da.

Bai. Hainbat hizkuntza komunitateri euskararentzako sortu dugun baliabidea eskuragarri jartzea izan da helburua eta hainbeste hizkuntza komunitateri zuzentzeko/aurkezteko aukerak aztertzen jarri ginean bisualki egin behar zela erabaki genuen. Webgunearen inguruko informazioa euskaraz jarritz gero, euskal hiztunok bakarrik ulertuko genuke eta munduari begirako gunea nahi genuen. Hizkuntza guztiak trataera berdina ematearren, hizkuntza guztietara itzuli beharko genukeela ikusita eta horrek ekarriko zuen lana kontutan hartutik, inongo esplikaziorik eman gabe ulergarria izango zen gunea sortzea erabaki genuen. *www.hizkimizki.com* helbidean sartu eta orri sinple bat zabaltzen zaigu non bi lauki agertzen diren bata bestearen ondoan. Ezkerreko laukian abiapuntu bezala nahi dugun hizkun-

tza hautatzen da eta eskumakoan konbinatu nahi duguna. Azpian dagoen gezi berdearen gainean klik egin eta 20 segundoren bueltan maketatutako hiztegitxo ematen digu.

Herritarren parte hartzea handia izan duzue.

Bai. Ideiaren lanketa, koordinazioa eta trakzio lanak Topaguneak egin baditu ere, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan da. Hiztegi gehienak Euskal Herriko kaleetan sortu dira, beste hizkuntza batzuetako hiztunak diren herritarrek egin dituzte. Hiztegiak zuzentzeko beste hiztun batzuekin kontrastatu dugu eta aplikazio informatikoa, berriaz, Konponbit elkarteak egin du. Guztira 100 pertsona inguru aritu gara hizkimizkiren bueltan dantzan.

Auzoko egitasmoan du abiapuntua?

Bai Topagunearen Auzoko egitasmoaren baitan sortutako hizkuntza askotariko gunea da. Auzoko hizkuntza egitasmoa da, euskaratik urrun bizi diren herritarrak euskarara hurbiltzeko asmoa duena. Gure herrietan askotariko kulturak eta hizkuntzak daude, eta, horiek ezagutu eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eraikitzeko eta guztion arteko komunikazioa euskaraz jorratzeko, sortutako egitasmo xume, horizontal eta parte-hartzailea dugu. Egun Euskal Herrian 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta Auzokoon ondare hori ondo zaintzea dagokigula sinisten dugu, oinarrian guztion arteko elkar aitortza jarritz. Beste hizkuntza batzuetako hiztunak gurera hurbildu nahi ditugu eta honek euskararekiko aitortza eskatzen du. Euskal hiztunok gure hizkuntzarekiko dugun atxikimendua beste hizkuntza batzuetako hiztunek ere badaukate haienarekiko eta aitortu nahi diegu. Hala, 2010ean Auzoko abian jarritako herrietan, beste hizkuntza batzuetako herritarrekin oinarritzko hiztegitxoak lantzeari ekin genion. Hiztegi bakoitza hizkuntza horretako hiztunek egin dute, haiek dira hiztegien egileak eta hiztegi bakoitzean egilearen izena jasotzen da.

Dagoenetan lagako duzue ala atal berriak gehituko dizkiozue?

Praktikotasuna bilatzen dugu, hiztegitxoak erraz eskuragarri izatea eta honegatik maketatu ditugu DinA4an, etxean inprimatu ahal izateko. Maketazioak mugatuta, 227 ilarako hiztegitxoak sortzen ari gara gaika: erosketak egiteko, eskolarako, turismorako, etab. Etorkizunean, egoera desberdinetarako oinarritzko poltsikoko hiztegiak lortu ahal izango ditugu *hizkimizki.com* webgunean.

Paella erraldoia Arrasaten Herri Eskolaren 10. urteurrena ospatzeko

M.B. | ARRASATE

Arrasateko Biteri kalean giro aparta izan zen zapatuan, goizetik hasita. Herri Eskolaren 10. urteurrenako jaia dela-eta guraso eta ikasle mordoa batu zirelako bertan egon ziren puzgarrietan jolasten, tailerretan esku hartzen edota haurrendako antzerkiez gozaten. Ia 500 lagun batu ziren paella erraldoia bazkaltzeko.

Eguerdian, goizeko ekitaldiak burutzeko materiala batzen zuten bitartean, gurasoak mahaiak antolatzen hasi ziren, eta bitartean, paella erraldoia

bere erritmoan egiten. Egiten zuen beroaz, baina, tripa betetzen hasi aurretik Biteriko iturriak izan zuen arrakasta, neska-mutikoak freskatzeko erabili zutena. Hala, 14:30ak inguruan zuten bazkaltzen has-teko asmoa. 450 lagun asetzeko moduko paella prestatu zuten plazan bertan, eta ez zuen batera itxura txarra. *Herri Eskola 10 urtez elkarbizitza eta harremanak sustatzen*; lelo horretan zapatuan beste aurrerapauso bat eman zuten, eta bide batez, modu ezin hobean amaitu zuten ikasturtea.



Biteriko aterpean, guraso eta ikasleak bazkaltzeko gertatzen. | X.U.



Herri Eskolako hainbat ikasle. | N.A.



Mahaian, paellaren zai. | X.U.

Unai Barrena gazteak koman jarraitzen du Cruceseko ospitalean

A.Z. | ARRASATE

Egun gogorak izaten ari dira Arrasateko Unai Barrenaren sendikoendako, eta baita Ointxe! saskibaloi Taldeko kideendako ere. Izan ere, Unai Barrenak istripua izan zuen duela egun batzuk Ukrainian, eta buruan ebakuntza egin ostean Euskal Herrira ekarri zuten

zapatuan. Goienak jakin duenez Cruceseko ospitalean dago gaztea, eragindako koman. Arrasateko saskibaloi taldeko kide jokalaria, Unai Barrena Polonian zen ikasketak tarteko egonaldia bat egiten, eta egun batzuk pasatzeko asmoz Ukrainiara egindako bidaiari izan zuen istripua.



Unai Barrena, ezkerrean, Barberoren jaurtiketari adi. | GOIENA



Maidor Elkoro Bergarako Errotalde jauregi aurrean. | MONIKA BELASTEGI

Iturri gorriko pago motzen berreskurapena ezagutzen

Europako Batasuneko Life Natura egitasmoko ordezkari bat Oñatin izan zen eguenean

A.M./U.A. | ARRASATE

Europako Batasuneko Life Natura egitasmoa 1992an sortu zen, ingurumenaren garapenerako eta bioaniztasuna mantentzen laguntzeko. Orduetik hona, 3.014 proiekturi lagundu die; tartean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bioaniztasuna eta Mugarratuak izeneko proiektuari. Proiektu horrek 3.051.817 euroko aurrekontua du eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Life Naturak erdibana finantzatzen dute. Ekimen horren barruan dago, besteak beste, eguenean bisitatu zuten Oñatiko Iturri gorriko pagadia.

Life Natura egitasmoko arduradunekin batera, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko diputatu Jon Peli Uriguren eta Mikel Biain Oñatiko alkatea izan ziren. Aldundiko ordezkariak *Biodibertsitatea eta zuhaitz motzak* programaren inguruko azalpenak eman zituzten Arantzazuko Gandiaga Topagunean, eta gero, Iturri gorriari



Aldundiko teknikariak azalpenak ematen Iturri gorriko pagadian. | ANDER MONEDERO

no joan ziren pago motzak berreskuratzeko lanak bertatik bertara ezagutzera.

Biodibertsitatea zaintzeko

Pago motzak berreskuratzeaz gain, iraunkortasuna bermatzeko zuhaitz motz berriak ere sartu dituzte. Valentin Mugartza Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuko teknikariaren esanetan, paisaia

-baliabideen eta kultura-balioez gain, zuhaitz motzek badute biodibertsitatea zaintzeko balioa ere: "Gipuzkoan ez ditugu baso zaharrak, eta zuhaitz motzek ordezkatzeko dute haien lekua". Antzina, abereek bazkatzeko eta egurra lortzeko landatzen ziren; gaur egun, berriz, inguruko bioaniztasuna mantentzeko ezinbestekoak dira.

Paul Rios: "Gure artean topatu beharko dugu irtenbideren bat"

USOA AGIRRE | ARRASATE

Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak hitzaldia eskaini zuen joan den eguenean Eskoriatzako batzokian. Aieteko Bake Konferentziaren bultzatzaile izan zen Lokarri, eta Euskal Herriko bake prozesuaren inguruan jardun zuen. Riosak aipatu zuenez, bake prozesua erroztzeko zailtasunak daude: "Bage-nekien prozesua ez zela erraza izango, baina ez genuen espero Madrilgo Gobernuak hain jarra-rra itxia izatea". Euskal Herrian beste giro bat dagoela aipatu zuen, badagoela konfiantza eta komunikazioa alderdi politiko ezberdinen artean.

Esan zuen, era berean, garrantzitsuena izango dela Euskal Herrian martxan jartzea elkarrizketa prozesua.

Irtenbiderako, elkarrizketa

Euskal Herriko gaur egungo egoerari begira, Madrilgo Gobernuaren jarrerarekin etsita agertu zen, eta hauxe azaldu zuen: "Madrilek ez badu ezer egiten, hemen konpondu beharko dugu prozesua, eta irtenbide bat topatu. Horretarako, garrantzizkotzat jo zuen Euskal Herriko indar politiko guztien arteko koordinazioa eta elkarrizketa martxan jartzea.



Paul Rios, erdian, egueneko hitzaldian. | BERNAT ALBERDI

Nahi baduzu, Gasteizen bizi zaitzke *Sartu eta aukeratu!*



ZABALGANA Cambridge bizitegia

Eraikuntza berriko etxebizitza libreak, bi eta hiru logelarekin eta terraza handiekin. Garajea eta trastelekua barne. **168.000** eurotik aurrera (27.952.848 pzta.).

Informazio gehiago >



FUEROS ERAIKINA Gasteizko erdialdean

Hirigunean, etxebizitza berri bizi izateko azkeneko aukera. Bi, hiru eta lau logelarekin. Atiko ikusgarriak. **248.218** eurotik aurrera (41.300.000 pzta.).

Informazio gehiago >



Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)

Ez da beharrezkoa Gasteizen erroldatua egotea. Bi eta hiru logelako etxeak, garajea eta trastelekua **84.736** eurotik aurrera (14.098.889 pzta.).

Informazio gehiago >



ZABALGANA Toloño bizitegia

Labastida kalean etxebizitza libreak. Bi logelakoak **169.000** eurotik aurrera (28.119.234 pta). Eta hiru logelakoak **192.000** eurotik aurrera (31.946.112 pta). 2. eta 3. atarietako lehenengo 15 erosleek bigarren garaje-plaza izango dute prezioaren barruan, kargurik gabe.

Informazio gehiago >



TRINOSA
Servicios Inmobiliarios

TRINOSA Servicios Inmobiliarios
San Pudenzio, 1 - San Antonioren izkina
01005 Vitoria-Gasteiz

trivinsa.com
Egunero gehiago eskaintzen dizugu

945 15 15 15

Itsaso Gonzalez | Mondragon Unibertsitateko Ekodiseinu Gelako arduraduna

"Ingurumenaren merkatuak lana dauka, baina aukera handia da"

Ekodiseinuaren gaineko jardunaldia emango du Mondragon Unibertsitateak bihar, martitzena, ekoeragingarriago izan daitezen enpresak animatzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bihar, martitzena, *Ecodiseño: un elemento diferenciador para incrementar las ventas* delako jardunaldia izango da MUn, unibertsitatearen Ekodiseinu Gelak antolatuta. Horko arduradun Itsaso Gonzalezen esanetan, "oraindik ez dago ingurumenari bideratutako negozioirik".

Euskadiko I. Ekoeragingarritasun Astean parte hartzen zabilzate, eta maiatzaren 25ean, lehenengo jardunaldia zuek antolatu zenuten. Zer moduz?

Ingurumenari bideratutako merkatu aukeren gaineko jardunaldia izan zen, eta mundu osoko erreferenteak etorri ziren: Nathan Shedroff, AEBetatik; Ingalaterratik beste bi; Bartzelonatik ere bai; eta, Euskal Herritik, MU eta Aclima. Enpresetako, zentro teknologikoetako eta Diseinu Estrategikoan masterra egiten dabilen jendea etorri zen.

Ondorioetako bat izan zen munduan oraindik ez dagoela ingurumenari bideratutako negozioirik; beraz, esplotatu bako

merkatu hori zabalik eta deskubritzeko moduan dago, eta hor sartzeko lan handia da, baina aukera handia ere bai.

Eta biharko, bada, zer antolatu duzue?

Gai berbera landuko dugu, baina hemengo enpresendako. Ekodiseinua aplikatzen duten enpresak etorriko dira, merkatuan ze aukera dauden eta ekodiseinuak ze abantaila dituen azaltzera. Hizlari gisa, Oronatik, LKStik eta Fagorretik etorriko dira, eta MU ere hizlari izango da. Gero, MUren Diseinu Berrikuntza Zentroan bisita egingo dugu.

Jardunaldi horretan izena eman daiteke Ihoberen webgunean (www.ihobe.net).

Zertan datza ekodiseinua?

"Mitoa da produktu ekologikoak ez direnak baino garestiagoak direla"

Filosofia da produktu baten ibilbide osoan ingurumenean egiten dituen inpaktuak gutxitzea. Horretarako erabiltzen diren estrategiak izaten dira materialak gutxitzea, erabiltzen den energia edo ura gutxitzea...

Kontsumitzaileak baloratzen du hori?

Bai baina, momentu honetan, produktu bat ingurumen aldetik beste bat baino hobea dela zaila da igartzen, erabiltzen diren erreferentziak ekoetiketak direlako, eta milaka ekoetiketa daudelako merkatuan. Goitik lan handia dago egiteko.

Eta krisiak eragiten du? Ekodiseinu produktuak garestiagoak izango dira...

Hori mitoa da: izan daiteke garestiagoa edo ez. Are gehiago: ekodiseinuaren estrategia bat materialak eta energia gutxiago erabiltzea denez, produktua, kasu batzuetan, merkeago ere izan beharko litzateke.

MUk 2004an sortu zuen Ekodiseinu gela, eta orain bi urte, aldaketa garrantzitsua izan zuen...



Itsaso Gonzalez. | LEIRE KORTABARRIA

Bai. Hasieran, ikasketa amaitzen zuten ikasleak gai horretan hezen zituen, eta proiektua egiten zuten. 2010ean, beste pauso bat: eta ekodiseinu berrikuntza master baten inplantatu da, modulo oso gisa, eta ekodiseinu eta eko-

berrikuntza inguruko gaiak lantzen dira hor. Gaur egun, ekoeragingarritasuna eta ekoberrikuntza lantzen gaude.

Masterrean hiru hanka lantzen dira: jasagarritasuna lortzeko ez diogu ingurumenari bakarrik begiratu behar, baizik eta baita norendako gabiltzan zerbitzua eskaintzen, hau da, pertsonendako diseinua. Eta hirugarren seihilekoan, estrategia lantzen da eta negozio eredu berriak ikusten dira, ingurumenari zuzenduta sortzen diren enpresek negozio-eredu berezia izan behar dutelako.

"Ekodiseinu gelako ikasgaiak master baten inplantatuta daude 2010etik"

Landarako dirulaguntzak lortzea samurtu egin du Foru Aldundiak

- ▶ Baldintzak betetzen dituzten guztiei emango diete, lehen ez bezala
- ▶ Nekazari gazteek %20 gehiago jasoko dute edozein laguntza motatan

L.K. | ARRASATE

Nekazaritza iraunkorragoa sustatzeko, hain intentsiboa ez den abeltzaintza laguntzeko eta lurreko baratzezaintza garatzen laguntzeko, Foru Aldundiak 2012-2013 urteetako Landa Garapeneko diru-laguntzen deialdia zabaldu du. Denera 2.300.000 euro izango dira ustiatzearen artean banatuko direnak, nekazaritza ustialekuak modernizatu eta nekazari gazteak laguntzeko. Aurten, gainera, baldintzak arindu egin dira, subentzioak ahalik eta gehien zabalduz.

Subentzioak, gehienez ere, 100.000 eurokoak izango dira eta eskatu ahal izateko inbertsioaren kopuru minimoa jaitsi egin da aurtengo deialdian: lehen gutxienez 6.000 euroko inbertsioa existitzen zen eta orain berriz 3.000 eurora gutxitu da minimo hori. Horrekin, Aldundiak sektorean subentzioak ahalik eta gehien zabaltzea du helburu.

Eskaerak egiteko epea dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratetik uztailaren 20ra bitartean izango da.



Bi belaunaldi, Garagartzako ortu baten lanean. | UBANE MADERA

DATUA
3.000
EURO
Dirulaguntza eskatzeko gutxienezko inbertsioa 3.000 euro izan behar da.

Gutxienez 10 urtean lanean

Aurtengo diru-laguntzak banatzeko sistema erabat aldatu da eta ez da konpetitiboa izango, baizik eta baldintzak betetzen dituzten guztiengana iritsiko da. Hortaz, aurreikusitako diruarekin eskaera guztientzat iritsiko ez balitz, prorrateoa edo banaketa proportzionala ezarriko litzateke. Onuradunak gutxienez 10 urtez jardun beharko du neka-

zaritzan, dirulaguntza ematen zaionetik kontatzen hasita.

Egingo diren inbertsioek nekazaritza ustialekuaren errendimendu orokorra hobetu beharko dute: makineria eta ekipo berriak, fruta arbolak landatzea, e.a.

Bestalde, laguntza kopuruak portzentaje batean handitzen dira honako kasuetan: ekoizpen ekologikoak direnean; dirulaguntza titulartasun partekatuko entitate batek jaso behar badu; inbertsioak lurreko baratzezaintzara eta lorezaintzara zuzenduta dauden ustialekuean; jarduera osatzea xede dutenak dibertsifikatzera zuzenduta daudenean; eta desjabetze edo interes publikoa dela-eta, instalazioak lekuz aldatu behar direnean. Azken kasu horretan, ez da portzentajea handitzen, laguntza %20koa da kasu guztietan.

Nekazari berriendako

Laguntza mota guztiak handiagoak izango dira nekazari gazteek eskatzen badituzte: %20 handiagoak, hain zuzen ere.

Bestalde, 40 urtetik beherako nekazari berriek diru laguntza bereziak izango dituzte jarduten hasteko. Laguntza hauek bi eraketa izango dira: nekazaritzako ustialeku baten instalatzeko behar diren gastuak laguntzeko (280.497 euro hiru urtean); eta gastu eta inbertsioak estaltzeko nekazari gazteek hartutako mailaguen interesak arintzeko (243.302 euro banatuko dira bi urtean).

Pobreziaren kontrako dekretua, uztaileko

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak martitzenean iragarri zuen Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza arautuko duen dekretua datorren uztailearen lehen sartuko dela indarrean, gizarteratzearen arloko eragileekin, Gizarte Langileen Elkargorekin eta Gipuzkoako udal nagusietako Gizarte Ongizateko arduradun tekniko nahiz politikoekin aurrera eraman den partaidetza prozesua amaitu ondoren. Dekretu horren eskutik emango dira AGI izeneko dirulaguntza berriak, Eusko Jaurlaritzaren gutxienezko diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzeko behar diren gutxienezko hiru urteetan errolatuta egon ez direnendako.

Gizarte Politikako Departamentuak lurraldeko gizarte langileak dekretuaren gainean ondo informatzeko erabiliko du denbora hori. Ekain erdialdean, berriz batzartuko da haiekin, eta eskuliburu bat banatuko die, laguntza sozial berri honen kudeaketa errazteko asmoarekin.

Pedro Etxeberria | Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteko idazkaria

"Osasun arloari dagokionez, medikamentu larregi kontsumitzen dugula uste dugu"

- ▶ Pentsionistek hedabideetara bidali dute idatzia euren ahotsa entzuna izan dadin
- ▶ Egungo sistema kapitalak zuzentzen duela eta hori ezin dela onartu diote

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak idatzi bat kaleratu du Espainiako Gobernuak hartu dituen neurrien gaineko balorazioa egiten. Pedro Etxeberria aretxabaletarra Gipuzkoako elkarteko idazkaria da. Harekin izan gara bizi duten egoera bertatik bertara ezagutzeko.

Bizi dugun egoera honen aurrean zuen iritzia entzutea gura duzue. Hau da hedabideetara bidaltzen dugun lehenengo idatzia. Guk defendatzen duguna da zahartze aktiboa, baina, era berean, gure interesak defendatu gura ditugu. Ez dugu polemikarik sortu gura, gure iritzia eman eta, behar izanez gero, kalera irtengo gara, baina, oraingoz, hori ez da gure nahia. 36.000 pentsionista gara, eta Gipuzkoa osoan 69 elkarte daude. Gure iritzia eman gura dugu, baina kontuan hartu behar da norbanako bakoitzak bere iritzia duela, botoa duen moduan. Baina argi utzi behar da elkarrearen asmoa ez dela botoa bideratzea.

Nola sentitzen zarete erretiratuak?

Gizarte honetan, erretiratuak beti baztertuta egon izan da, nahiz eta hori aldatzen doan azkenaldian. Familian laguntza handia gara, gero eta gehiago, gainera, baina, gainerakoan, baztertuta gaude. Nik ez dut inoiz entzun sindikatuen aldetik erretiratuei bideratutako politikarik. Politikariek erretiratuen botoak gura dituzte, eta horretarako promes asko egiten dituzte. Gaur egun gehiengoan dago Espainiako Gobernuak, baina hauteskundearen aurretik esan zutenak ez du zerikusirik egiten ari direnarekin.

Osasun arloan hartu diren erabakien kontra zaudetela diozue.

Bai, kopagoaren aurka gaude, baina ez erretiratu moduan baka-

rririk, ordainketa partekatua denondako da txarra. Gehiago ordaindu beharko dute osasun arazo gehien dutenek. Ordainketa partekatua eta pentsioak izoztearen aurka gaude, baina, batez ere, gutxien duenari eraso egitearen kontra gaude. Kasu honetan, pertsona nagusiak gai-

nerakoak baino ahulagoak direla esan daiteke. Guk gura dugun bakarra justizia da, eta, alde horretatik, eskandalizatu egiten gaitu Gobernuak urruneko erakundeek zuzentzen dituztela ikusteak: kapitalak, alegia.

Gobernuak kapitalaren menpe daudela diozue?

Bankiarekin gertatzen ari dena oso larria da. Guk uste dugu Gobernuak dirua bideratu beharko lukeela maileguak dituztenei: modu horretan, herritar horiek maileguak ordainduko lituzkete, eta, bide batez, dirua bankueta-ira iritsiko litzateke. Azken finean, Merkelek zuzentzen gaitu gu eta

Merkel, ostera... kapitalak zuzentzen du.

Osasun arloari dagokionez, medikamentuen sistema aldatzea beharrezkoa dela uste duzue?

Bai, noski. Pastilla larregi erosten ditugu. Zergatik erosi behar ditugu 50 pastilla zortzi bakarrik erabili behar baditugu? Etxe guztietan dago kaxoi bat medikamentuz beteta. Medikamentuak dosi egokian kontsumituta kopagoarekin baino gehiago aurretuko dugu. Justiziarik eza da hori. Gehiago ordaindu behar dute gutxien dutenak.

Erretiratuen pentsioak nola finkatzen ditu Gobernuak?

Parlamentuak finkatzen ditu pentsioak, eta pentsio horiek KPIren arabera ezartzen dituzte (IPC). Pentsioa jasotzen duten herritar asko oso gutxiarekin bizi dira, eta, gainera, medikamentuak ordaindu behar badituzte... ba, esango didazu nola bizi izango diren!

Alde handia dago Debagoieneko pentsionisten eta Gipuzkoako edo Espainiako pentsionisten artean?

Gure bailarak berezitasun bat dauka, kooperatibista asko daudelako. Alde horretatik, erretiratuek abantaila handia dugu: Lagun Aro eta autonomoak ditugu. Gainerakoan, Gipuzkoan eta Espainian pentsioak berdinak direla uste dut.

Pentsioak izoztearen aurkako sinadurak batuko dituzue?

Bai, 2010ean pentsioak izozteko onartutako dekretuaren aurka batuko ditugu sinadurak. Estatu mailan nagusien kontseilua dago, eta hor gure federazioa sartuta dago (Euskadikoa). Azaroan erabaki zen pentsioak izoztearen aurka egitea eta lege hori aldatzeko eskatzea. Sinadurak batzen laster hasiko gara hemen, baina, egia esan, uste dut gaur egun arazo larriagoak daudela.



Pedro Etxeberria, Basotxo elkartearen aurrealdean. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Hau da hedabideetara bidaltzen dugun lehen idatzia"

"Gizarte honetan erretiratuak beti baztertuta egon izan da"

"Gure bailaran erretiratuek abantaila bat dugula uste dut"

"Pertsona nagusiak gainerakoak baino ahulagoak direla esan daiteke"

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
http://goiena.net/iritzia/



Jaia eta lana

Jaiak izan berri ditugu Bergaran. Kanpotar gutxi izan ei da, baina herrikoak murgildu dira jai-giroan. Zortziehun lagun herri bazkarian eta milarentzako tokia eskaini balitz ere, hor nonbait beteko ei zen.

Jaiak: barrakak, musika... eta zezenak. Zezenak, bigantxak, poneyak... Urte mordoxka dira Frankismo ostean Bergarara jaietara zezen-plaza eta zezenak ekartzen hasi zirela. Ez zuen ekimenak sektore baten aldetik oso harrera ona izaten. Urteen joanean jaialdia bera ere birmoldatzen joan delako edo dena delakoagatik gaur egun zezen-plaza Pazkoetako jai-gune nagusietakoa bihurtu da. Zezen-plaza da ume, gazte zein nagusi askoren goizeko lehen biltokia. Ez dira gutxi goizeko 4rak arte parrandan pasa ondoren goizero esnatu eta zezen-plazara joaten direnak.

Gainera, zezenak krisian ei dauden garai honetan herrian bertan sortu da ganadutegia. Labadorak bakarrik ez; zezenak ere esportatzen dira Bergaratik."

"Labadorak bakarrik ez; zezenak ere esportatzen dira Bergaratik"

Baina ez da dena jai gure inguruan. Uste dut ez duela behar besteko oihartzunik izan gure inguruan Fagor taldeak soldatak %5 eta %9 artean murrizteko hartu duen erabakiak. Hedabideetan agertu da albisteak, baina ez dut nik kalean komentario askorik entzun. Lehenago ere onartu izan dituzte Fagorreko langileek murrizketak: 2008an aparteko paga bati uko egitea erabaki zuten eta 2009an %8ko murrizketa onartu zuten. Aipagarria da, gainera, oraingoan, erabakiak orduan baino dezentez adostasun zabalagoa izan duela.

Bergarako enpresa txiki bateko jabeetako batek haserre esan zidan behin sindikatuek multinazional handien aurrean indarririk ez eta herriko enpresariak estutzen zituztela ito arte. Gure enpresariak arrazoi izan edo ez, ez daukagu bailaran zorte makala Fagoren etorkizunaren erabakia Koreako edo Alemaniako bulego batean hartu ordez bailarako antzoki edo pilotaleku bateko batzarrean hartzearekin.

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Gurasoendako topagunea

Zenbat zalantza eta zenbat burukomin izan ohi dugun ama gehienok umeak izan orduko: lo gutxi egiten duelako; sarri gaixotzen delako; besoetan hartuta bakarrik isiltzen delako; txupetea ez delako ona (ala bai?)... Eta hazten doazen heinean beste batzuk agertzen dira. Zalantzok argitzea ez da samurra, baina beste ama batzuekin berba eginda arindu egiten dira. Hori horrela, Kuku Miku elkarteak sortu berri dute Aretxabaletan. 0 eta 3 urte arteko umeak dituzten gurasoen topagunea izan gura duen elkarteak da, guztiz irekia, eta hainbat ekintza antolatze asmoarekin datoz. Lokala Udalak utzi die, eta irailetik aurrera izango dugu euren berri.

KALE INKESTA

Bizi dugun krisi garaiotan, ze berri entzun nahiko zenuke?



XABIER ELGEZABAL
ARRASATE

"Denontzako lan aukerak izatea eta guztion artean pozik bizitzea. Guztiok lanpostua bat edukitzea beharrezkoa da".



NEREA MAIZTEGI
ARRASATE

"Krisiaren benetako sortzaileak eta errudunak zigortzearen albisteak oso ona eta beharrezkoa izango litzateke".



JOSE RAMON BELASTEGI
ARRASATE

"Krisi ekonomikoa eta egoera politikoa konpontzea eskatuko nuke. Eta noski, denok bakean bizi ahal izatea".



MERCEDES PENA
ARRASATE

"Arazo guztiak konpontzea eskatuko nuke. Guztiontzat lana izatea, denok daukagu lan egiteko eskubidea".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zein zaila den gero bizitzea

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Eta, etsipenak jota, mutikoak nigarrari amain eman zion, bere bizitza osoko iruzurrik handiena bailitzan: hau ez da nik itxaro nuena, ez naiz ni etxetik honetarako atera, baina ez al genuen ba irabazi behar, orduan zertarako etorri gara?

Aldamenean nuen zortzi urteko mutikoa pozarren zegoen.

Elastiko zuri-gorri-berdeaz jantzita, urbitsetan, noiz partida hasiko.

Sekulako giroa azken berrogei urteotan Realaren zein Athletic-en hainbat final bertatik bertara ikusteko (eta, inoiz, irabazteko) aukera izan dugun zaharrentzat... zer ez toten gero zortzi urte baino ez zituen mutikoaren burutik pasatuko.

Begiak ñir-ñir, matrailak diz-diz, ezpainak dar-dar, aurpegira begiratu besterik ez zegoen mutikoa inoiz ahaztuko ez duen unea bizitzen ari zenaz jabetzeko.

Ezertaz konturatu orduko, ordea, gorri-urdinek aurrea sartu zuten eta gure mutila

nora ezean geratu zen, aho zabalik, arratseko iragarpenetan inork horrelakorik aurreratu izan ez balio bezala.

Laster asko, berriz, bigarrena.

Ustekabean bai, oso ustekabean, baina bigarrena.

Eta mutikoak aitari begiratu zion, behetik gora, harridura hartatik aterako zukeen mirariren baten itxaropenetan edo.

Berehala, berriz, hirugarrena.

Eta, etsipenak jota, mutikoak nigarrari amain eman zion, bere bizitza guztiko iruzurrik handiena bailitzan: hau ez da nik itxaro nuena; ez naiz ni etxetik honetarako atera; baina, ez al genuen ba irabazi behar; orduan, zertarako etorri gara?

Zein zaila den gero bizitzea...

Pasadizoak IV

Mikel Asurmendi
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Duela 25 urteko pasadizoa da honako hau.

Hondarraitz plaian dago pijoia, zangoak zabal-zabalik toalla gainean, neska bikote liraina haren ondoan, titiak

zut. Eguzkia ederra zeruan, egun paregabea.

Euskal kulturaren espresio bateko izar berri horietakoa da gizonezkoa.

Haien atzean beste morroi bat dago, bikoteari so tarteka, kuxkuxean edo.

Liburuxka arraro bat dauka eskuetan, Afrikako herrialde baten izenburukoa.

Irakurtzen ari da, edo plantak egiten bederen.

Nekez ulertzen du irakurtzen duen apurra, dena den.

Utopiaren adierazpena omen da liburua, eta bidenabar erranik, utopikoa ere bada, ingurumari horretan irakurtzea.

Adi-adi morroia, horrela entzun du haren aurrean dagoen artistaren ahotikan:

–Benetan esaten dizut neska, gure esperantza bakarra burdinarekin dabilzanak dira.

Horiek gabe, ez dakit Euskal Herrian bizitzeak merezi duen.

Horra! Badira bai, bizitza seinalatzen –eta markatzen gaituzten– diguten pasadizoak.

P. S. Artistak bigarren etxe bat dauka Hendaian gaur egun. Bide batez erranik, I. pasadizoko komunista ohiak ere bai.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Asteburuko edizio arduraduna
Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Kontzertua

Ekainak

8

Ostirala

22:00

Arrasate

Amaia Udal Antzokia

*Goikobalu Gazte
Goikobalu Txiki
Et Incarnatus orkestra
Eñaut Elorrieta
Amaren Alabak
Baigorriko gaiteroak
Juantxo Zeberio Etxetxipia*

Zuzendaria: Miguel Zeberio



Sarrerak salgai:



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jose Mari Igartua | EAJ alderdiko zinegotzia bi agintalditan: 1987-1991 eta 2007-2011

- ▶ Eli Galdosen agintaldian Enplegu eta Industria zinegotzi gisa jardun zuen (1987-1991)
- ▶ Lourdes Idoiagaren agintaldian Zerbitzu eta Ingurumen zinegotzia zen (2007-2011)
- ▶ Nekazaritza, Turismo, Hirigintza eta Mankomunitateko ingurumen batzordeetan ibili da

"Olate erostearen aldeko apustua ona izan zela herriarendako ikusi da denbora pasa denean"

MAIDER ARREGI | OÑATI

Jose Mari Igartua ETEO, MU eta Ikastolaren hasierako proiektuen bultzatzailea da. Astean lau bat mendi buelta egiten ditu. Herriarendako lana egiteagatik sartu zen politikan.

Eli Galdosekin lan egin zenuen.

Garai hartan Olate erosi genuen; ez zen garai ona, dirurik ez zegoe-lako eta zorpetu egin ginelako. Kritikak izan ziren, baina energia garbiaren aldeko apustua egin genuen, eta ikusi da ona dela herriarendako. Unibertsitatean soziologia juridikoko nazioarteko erakundea jartzea ere lortu genuen. Parisek eta Milaneke nahi zuten, baina, azkenean, Oñatin jartzea lortu genuen. Oso garrantzitsua izan da; jende asko ekarri du.

Enplegu eta Industria batzordea sortu zenuten.

Bai; 25 urte pasa dira ordutik. Oñatin bete beharreko beharrak zeuden eta enpresek batu ginen. Formazioan zentratu ginen eta jendea kualifikatzearen aldeko apustua egin genuen. Enpresa txikiak ere sortu ziren, Garbilan esaterako, eta egun, 40 langile daude. Informatika kurtsoak ere hasi genituen, jakinda ordenagailu gutxi zeudela orduan. Langabeak kontratatzeke ekimena ere jarri genuen. Gazteendako proiektua ere bageneukan eta 1991 bukaeran hasi genituen gaztelekuko obrak.

Egin gabe geratu zen ezer?

Badut orduko pena bat: Iturri-eritrik Urbiara egin nahi genuen pistaren egitasmoak ez zuela aurrera egin. Udalak beti izan du kontzientzia ingurumenaz, eta orduan, Eskistako pista hon-



Jose Mari Igarria, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitate aurrean. | MAIDER ARREGI

datu egin zen, eta, horri irtenbidea eman guran, Urbiara Iturri-gorri-rako pista egin nahi genuen hango bidea aprobetxatuz. Gero, Arabatik egin zen bidea. Pena da, zeren lehen artzainak Arantzazura etortzeko ohitura baitzuten eta orain Arabatik egiten dute buelta. Planteamendua mahai gainera atera ere ez genuen egin, eragozpenak zeuden-eta ingurumen arloan eta ekonomikoan.

16 urteren ostean, bueltan.

Diferentzia handia zegoen bigarren legealdian. Ordurako banekien Udaleko funtzionamendua zein zen, eta errendimendua handiagoa izan dela uste dut. Gaiak ere menderatzen nituen. Lourdes Idoiagak animatu ninduen eta animatu egin nintzen, nahiz eta dagoeneko erretiratuta nengoen.

Azpi-marratzekotan zer?

Herriko mantentze-lanen ardura izan dut. Segurtasunaren eta lehenbiziaren arabera egiten genituen lehen lanak, dena ezin

"Biztanleendako Arreta Zerbitzua jarri nahi genuen barne kudeaketarako"

"Bosgarren edukiontzia-ekin aurrera ez egiteak pena eman dit"

zelako eginaldi berean; azpi-kontratazioen arabera jokatzeko erabaki genuen. Lantalde finkoa izatea betiko gastua da, eta, gainera, Udalak tresnak alokatu egin behar ditu. Azpi-kontratazioekin, behar denei erantzuna ematea posible zen, eta gastua murrizten genuen. Horregatik, denok kontu handiagoko izanez gero, eta kaleak zainduz, gastua murriztu dezakegu.

Elurraren protokoloa jarri zenuten azken legealdian.

Lehen urtean -2007-2008- elurra kentzeko makina bat kontratatu genuen; baina urte hartan ez zuen elurrik egin eta makina mantentzea asko kostatu zen. Orduan, protokoloa jarri genuen. Auzoekin koordinatuz, elurra aldi berean botatzen du-eta toki guztietan.

Gero, eskuzko makinatxoak ere erosi genituen. Baina bestelako lanak aipatu gurako nituzke. Oñati irisgarria eta iraunkorra izatearen alde egin dugu lan; hor dago Lanbus, esaterako, enprekin koordinatu genuen egitasmoa. Garraio publikoaren eta bidetegiaren alde ere egin dugu.

Eta penarik?

ANV ilegala izatea. Ez zegoen-eta arrazoirik. Zinegotzi barik geratu ziren. Guk, legez kanporatze horren ondorioz, tokatzen zitzaigun zinegotzia utzi egin genuen. Harremana ona zen alderdi guztiekin. Eta bestalde, bosgarren edukiontzia-ekin aurrera egin ez izanak ere pena ematen dit. Plangintza guztia eginda geneukan-eta. Biztanle Arreta Zerbitzua -BAZ- ere egiteko asmoa genuen, barne antolakuntza kudeatzeko eta denbora aurrezteko.

Zer eman dizu politikak?

Disgustutxo batzuk. Beti ezin da eta denon gustua egin. Baina asko ikasi dut eta gauza guztiek dituzte, txanponen moduan, bi alde. Udalean arazoren bat bada, kontrastatzea gustatzen zait, nahiz eta desconfiantzak eragin horrek askotan. Denak du beste alde bat eta alde hori entzutea gustatzen zait. Udalean lanean dagoenak kontziente izan behar du kritikak jasoko dituela. Baina benetan eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, emandako babesagatik eta borondatez egin duten lanagatik. Gauzak beste ikuspuntu batzuetatik ikustea eragin dit. Ondo arrazoituta kritikak jasotzea ona izan da guretzako; ideia freskoak ekarri dizkigute. Etor-kizunari begira, kudeaketa jasangarria egin gura izan dugu.

HONDAKINAK
KONPONBIDEA
Aurkezpen
hitzaldiak



BERRIA



+Ekainak 8

Arrasateko Kulturate (19:00)

Juan Karlos Alduntzin,

Ingurumen diputatua
Laia Valenzuela, Spora Serveis
Ambientals-eko zuzendaria

Tolosako kultur etxea (19:00)

Ainhoa Iraola, Ingurumen eta
Obra Hidraulikoetako zuzendaria
Joan Marc Simon, Zero Waste
Europe-ko zuzendaria

HERRIAK



David Zapirain, udal teknikaria, Irizar jauregiko lorategi aurrean. | KATALIN ANTIXIA

BERGARA

Debagoieneko 'Florentzia txikia' ezagutzeko aukera

MAIDER ARREGI | BERGARA

Bergarako erdigunea, gaurtik aurrera, beste begi batzuekin ikusteko eta sakonago ezagutzeko aukera dago. Herriko eraikin esanuratsuenetan 20 plaka eta lau panel jarri dituzte bakoitzaren kronologia eta historia azalduz.

Izan ere, 2003an Bergarako hirigune historikoak *Monumentu multzo* izendapena jaso zuen. Orduetik aurrera Bergarako Museo eta Turismo Sailak alde zaharreko eraikin batzuk nabarmendu nahi izan ditu plaka eta panel horien bidez.

"Bergarako ondareari bere errekonozimendua eman zaio. Helburua eraikinen arreta deitzea da, eta, horrela, benetako balioa ematea. Beste hamar plaka jarriko dira epe laburrean", azaldu digu David Zapirainek, udal teknikariak. "Ahalegin handia egiten ari gara informazio hori era ulergarrian emateko herritarrei. Kanpora zabaltzeko ekimena ere bada; dena sarean jarriko dugu, guztien eskura".

Bi ibilbide historiko

Bi ibilbidek dute Herriko Plaza abiapuntu. Lehena XVIII. eta XIX. mendeetako gertakizunei lotutakoa da. "Bergaran, badakite Elhuyar anaiek wolframioa aurkitu zutela; baita fisika eta kimikako beste elementu batzuen aurkuntzak egin zirela ere. Hain zuzen ere, Ibilbide horrek Seminarioetik ikerlekua zegoen tokiraino eramango gaitu. Baita XIX. mendeko beste eraikin batzuk ezagutzera ere: epaitegia, arrandegia, harategia, Angiolillo hil zen tokira", azaldu digu.

Eta berriro plazara etorrita, bigarren ibilbideari ekingo zaio. Kasu horretan, hiriaren beste alde ikusteko aukera izango da: Erdi Aroko eta Aro Modernoko hirigintza eta lorategiak, hain zuzen ere. "Jatorrizko hiru kaleetan gordetzen diren ondare kuttunak izango dira ikusgai".

Turismoa bultzatuz

Ekimen horren helburutako bat turismoa indartzea ere badela

azaldu digu teknikariak. "Herri-tik kanpo bizi den jendearene honen berri ematea da asmoa. Eta hona etortzeko gogoia piztea gura dugu. Etorri edo ez etorri, Internet eta sare sozialen bitartez, zabaltzea da helburua", azaldu digu Zapirainek.

"Ondarea ez da soilik zutik dauden harriak; ondarea ere bada mendeetan zehar herriko jendearengan sortzen den gogoia, espiritua edo tradizioa. Guk esan nahi dugu Bergara Europako tradizioan guztiz normalizatua eta txertatua den herria dela. Seminarioari esker, gainera, ikerkuntza eta pedagogiaren aitzindaria izan da".

Orain, batek baino gehiagok beste modu batean begiratuko dio Bergarako alde zaharrari, erdialdean ikus ditzakegun altxor historiko horiei. Hala, bisita gidatuak egiteko aukera dago aurreantzean. Interesa dutenek Museo eta Turismo Zerbitzura jo dezakete, 943 77 91 83 telefono zenbakira deituta.



ARGAZKILARIA XXX

JAUREGI ETXEA Europa erdialdeko influentzia du eraikinak eta gotiko berantiar stiloa du. Etxearen jabea, ziurrenik, European Gaztelako koroaren alde aritu zen eta bertatik hartu zituen ideiak.



KATALIN ANTIXIA

ERDI AROKO ETXEA Koldo Eleizalderen etxeko balkoia duzue. Haren ezaugarri nagusia da egurrezkoa beharrez harrizko balkoia dela. Erdi Aroko balkoi bakarra da; erre ez zen bakarra.



KATALIN ANTIXIA

ARTEKALEKO ATARIA. Artekale 15ean atari ikusgarria dago eta Florentziaraino garamatza. Bergara erdi-erdian dagoen arkuaren errenazentista estilokoa da.



KATALIN ANTIXIA

IRIZAR JAUREGIA Joakin Irizarren etxea izateagatik egin zen ezaguna. Baita *Bergarako besarkada* sinatu zelako bertan, eta Pizkundean inspiratutako lorategi ikusgarria izateagatik.



Askotariko artisauek egindako lanak ikusi eta erosteko aukera egon zen Ferixan. | JULIO CALLEJA

ESKORIATZA

Ferixan, denetarik eta denendako

- Bisitari asko izan ziren Ferixaren 16. edizioan
- Hainbat artisau jendaurrean ibili ziren lanean

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Eguraldi ona lagun, asko izan ziren zapatuan Arizmendi Ikastolak antolatutako Eskoriatzako 16. Ferixan ibili zirenak. Postuetan artisau ugari izan ziren lanak aurki zitezkeen. "Iaz harriak eta mineralak jarri nituen erakusgai; aurten, egurrezko lanak, matrakak-eta" zioen Eskoriatzako Jabier Etxebarrietak.

Hainbat artisau jendaurrean aritu ziren lanean, tartean Xabier Iturrioz zapatagilea. "Jendeak estimatzen du artisau lanean ikustea: materiala ikusi eta frogaz dezakete eskuz egindakoak direla" zioen Iturriozek. Bitxiak, ukendu eta xaboi ekologikoak, baserritar arropak eta herriko emakumeen ehonak izan ziren lanak. Parrokia inguruan ere jende ugari bildu zen ikastolako irakasle eta gurasoen eraketan.

Txorimalo lehiaketa

Artisauek bakarrik ez, ikastolakoek ere eskulanetarako duten abilezia erakutsi ahal izan zuten txorimalo lehiaketan. 31 taldek hartu zuten parte, Legoziti, Momo Mimoa eta Mendizalea izan ziren txorimalo irabazleak.

Jateko aukera ugari

Jatekorik ez zen falta izan. Arizmendiko ikasleek askotariko pintxoak eta krispetak saldu zituzten. Saltzaile lanetan zebiltzan Ane, Eider, Mireia eta Rhizlanen arabera, egunak aurrera egin ahala gero eta jende gehiago animatu zen mokadutxoak egitera; krispetak saldu zituzten gehien. Parrokia inguruan ere jende ugari bildu zen ikastolako irakasle eta gurasoen eraketan.

Herriko eta kanpokoekin postuetan urdaiazpiko, gazta, barazki eta bestelakoak ere egon ziren salgai. Gazta lehiaketan Gorka Letek eskuratu zuen sari nagusia hirugarrenez. "Sekretua? Gauzak ondo egitea. Gurea gazta ekologikoa da, horregatik ere izan daiteke" kontatu zigun Letek. Mila Goñi geratu zen bigarren. Posturik onenen sariak, bestalde, Gerrigardorentzat, Jabier Etxebarrietarentzat eta patchwork egileentzat izan ziren.

Azokaren osteko herri bazkarian 200 pertsona inguru elkartu ziren eta iluntzko txapel jaurtiketa txapelketan, Julian Garcia izan zen nagusi. Zozketako sari nagusia 1.493 zenbakiarentzat izan zen eta bigarrena 4.255arentzat.



ASIER GABILONDO
ESKORIATZA

"Gazta erdi bat erosi dut. Bertakoa izanda, urtero etortzeko ohitura dut. Herritarren aldetik, nahiko azoka parte-hartzailea da, eta herri bazkaria-eta egoten denez, egun pasa polita egiteko aukera izaten da".



DORLETA ARKAUX
ESKORIATZA

"Ogia eta gazta bat behintzat erosiko ditugu. Urtero egiten dugu erosketak, ahalegina egiten dugu. Askok gustatzen zaidan azoka da, izan ere bertan denetik daukazu, bertako produktuak esate baterako".



MAITE ALTUNA
ESKORIATZA

"Denetik apur bat erosita joango naiz etxera: ogia, odolostea, gazta, labanak zorroztekoa... Orain banasta batzuei begira nabil. Herri bazkariaren antolakuntzan eta taloetan-eta, herritarren parte hartze handia egoten da".



ARETXABAETA

JULIO CALLEJA

Hamazazpi gazte GauHonen

Hamazazpi gazte hartu zuten parte zapatuan Aretxabaetako Udalaren GauHon egitasmoan. Gazteekin elkartzeko ziren eta gazteekin elkarrekin erabaki zutenak: mahai-futbolearen aritu ziren lehenengo eta afaldu ostean berriz ere mahai-futbolearen eta solasean ibili ziren 01:00ak arte. Begiraleek balorazio positiboa egiten dute, eta hurrengo saioan kalean futbol txapelketa egitea erabaki zuten gazteekin.



ELGETA

JULIO CALLEJA

Gisatu onena, Faka-Fakarena

Epaimahaiko hiru kideek horrela erabakita, Faka-Faka koadrilako Josetxo Aranzabal eta Eneko Elkoro izan ziren zapatuan Elgetako Koadrilen egunean gisatu onena prestatu zutenak. Sei koadrilak hartu zuten parte lehiaketan eta bigarren saria 90210 koadrilarantz izan zen. Saria irabazi edo ez, koadrilek herriko plazan bazkaldu zuten eta MP5 taldearen musikak animatu zuen bazkalostea.



ARRASATE

JULIO CALLEJA

Garagardo azokan, 2.000 litro

2.000 litro garagardo, 600 ukondo, 600 oilasko, 1.000 saltxitxa plater... Arrasate Rugby Taldeak asteburuan aparteko arazo barik egin duen Garagardo Azokan utzitako zenbakiak dira horiek. Kako Mertxan zuzendaritzako kideak balorazio oso baikorra egin du: "Herritarrek afaltzera bakarrik ez, taldeari laguntzera ere etorri dira". Mertxanek eskerrak eman nahi izan dizkie Azoka aurrera eramaten lagundu duten guztiei.

ANTZUOLA

Giro alai eta atsegina Atzegi elkartearen urteroko jaian

Lagunarteko giroan bazkaldu ostean, Oihan Vegak jendea dantzan jarri zuen

AKETZ ZUBIA | ANTZUOLA

Debagoieneko Atzegiko familiek Atzegi eguna ospatu zuten zapatuan Antzuolan. Urtero Debagoieneko herriren baten ospatzen dute, eta aurtengoa, hamahirugarren urtea, Antzuolan izan da. Guztira, 140 lagun inguru elkartu ziren. Goizean bilera senitar-tekoekin urteroko asanblea egin zuten, proiektu berriak aurkezteko eta kezkek azaltzeko. Guztiek batera bazkaldu ondoren, Oihan Vegak jarritako musikarekin dantzatzeko aukera izan zuten. "Lagunekin elkartu eta ondo pasatzeko eguna da gaurkoa" esan zuen Jokin Antxiak. Datorren urtean Elgetan bilduko dira.



Atzegiko festara bertaraturakoak bazkaltzen. | GOIENA

AMAGOIA
AZKARATE
ANTZUOLA



"Goizeko bilera interesgarria izan da, eta bazkariak ere asko gozatzen ari gara. Gero, Oihan Vegak jarritako musikarekin dantzatzera animatuko naiz".

MACARIO
CASQUERO
BERGARA



"Egunaz erabat gozatzen ari naiz, eguraldia ere lagun dugu. Goizean Antzuolatik bira txiki bat eman dugu eta orain lagunartean bazkaltzen ari gara, dena ondo".

AINZANE
AZKARRAGA
ARRASATE



"Egun oso polita da gaurkoa, giro alai da nagusi. Goizean udaletxe ondoan elkartu ostean, denok elkarrekin bazkaltzera etorri gara. Elkar ikusteko egun aproposa da".

ARAMAIO

Ume eta nagusiak bidezko merkataritzaren aldeko azokan

Aramailur kontsumo taldeak eta Setem gobernuz kanpoko erakundeak antolatu zuten azoka Aramaion

A.Z. | ARAMAIO

Atzo bidezko merkataritzaren aldeko azoka egin zuten Aramaioko plazan.

Egunean zehar hainbat ekintza ezberdin izan ziren ume eta nagusientzat. Trikitilariekin girotutako dastatzearekin eman zioten hasiera egunari. Ondoren joku didaktikoak eta pintxo potea alai egin zuten. Antolatzailerik pozik agertu ziren jen-

dearen aldetik lortutako erantzunagatik. Eguraldia lagun izan zuten azokara bertaraturakoek. "Kanpoko jende nahikoa hurbildu da, eta hori oso positiboa da herriarentzat. Hemendik, antolaketan lagundu digutenei eta parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu" adierazi zuen Mikel Ocejak, Aramailur-eko presidentek.



Bidezko merkataritzaren aldeko azokaren postu bat. | JULIO CALLEJA

Goi mailako heziketa zikloetako titulu ofizialak

Informazio hitzaldia

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

LANGABETUENTZAT

LANGILEENTZAT

- Informazioa emango dizugu ezaugarri hauek dituzten ikasketen inguruan:

PRAKTIKOA
MALGUA
ZURE BEHARRETARA EGOKITUA

ETORRI GU EZAGUTZERA !

2012ko ekainak 7, osteguna
18:00etan MGEPen
5001 gela



Informazioa eta izena ematea

Isabel Mangana
943 71 21 83
imangana@mondragon.edu

Atzean utzitako aukera berreskuratu!

Haurren danborrada hilaren 16an, Sanjuanetarako dragoia esna dadin

Bederatzi konpainia irtengo dira; gaur hasiko dira arropak banatzen, konpainien arabera

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Haurren danborrada da San Juan jaiak badatozela iragartzeko ekitaldirik esanguratsuena eta batez ere zaratsuen, aurten ere danbor hotsek esnatuko dute eta ekainaren 23an San Juan sua piztuko duen dragoia. 26 urte beteko ditu aurten haurren danborradak eta azken 21 urteotan egindako moduan, SUDC elkarteak dabil antolatzaile lanetan.

Juan Luis Arkauz elkartearen presidentea jakinarazi duenez, maiatzaren 12an hasi ziren entseguen eta konpainien azken entsegu orokorra, danborradaren egunean bertan, ekainaren 16an izango da. Entseguen pozik daude antolatzaileak: "Entseguak oso ondo doaz. Haur asko etorri dira eta gehienek ondo dakizkitez abesti guztiak, baita aurten lehengo irtengo direnak ere". Aurten bederatzi konpainia irtengo dira eta horiez gain, txikiak beste konpainia bat osatuko dute, plastikozko danborrekin.



Entseguak San Viator Handin egiten dituzte. Irudian, zapatuko entseguko une bat. | XABIER URTZELAI

Urterokoari utsiz

Arkauzek aurreratu duenez, aurten ez da nobedade aipagarririk izango. Ekainaren 16an irtengo da danborrada, 19:00etan hasita. Ibilbidea, urterokoa: Nafarroa etorbidean hasi -ospitale parean- eta Garibai zein Maala

kaleak zeharkatu ostean, Portaitik Herriko plazara egingo du martxak, plazan amaitzeko. Banderadunak zeintzuk izango diren badakigu dagoeneko: Irune Aguriondok SUDCeko bandera eramango du, Allyson Gartziak

ikurrina, Alazne Zubillagak Arrasatekoa eta Txomin Frutosek, azkenik, bandera jenerala. Arropak gaur bertan hasiko dira banatzen, konpainien arabera. Izan ere, zapatuko entseguan antolatzaileek zehaztu zuten

konpainia bakoitzeko parte hartzaileek noiz pasa behar diren Nafarroa etorbidean dagoen SUDCeko egoitzatik arropak hartzeko; 18:00etatik aurrera pasa beharko dira. Haur kopuruari dagokionez, ez dute orain-

dik datu zehatza -arropa guztiak banatzen jakingo dute- baina Arkauzen arabera aurten 250 bat umek hartuko dute parte. Haur kopuruan aldaketa handirik ez, beraz: iaz 240 haur irten ziren.

ESANAK

"Entseguak oso ondo doaz. Haur asko etorri dira eta gehienek ondo dakizkitez abesti guztiak"

JUAN LUIS ARKAUZ
SUDC ELKARTEKO PRESIDENTEA

DATUA

250

HAUR INGURU

Oraindik datu zehatzik ez, baina Arkauzek dioenez, 250 bat haur irtengo dira aurten.



ARRASATEKO UDALA

Arriaga, udaltzainburu berria

Iñaki Arriaga da Arrasateko udaltzainburu berria. Soraluzen jaioa, Azpeitian bizi da egun eta azken 30 urteotan Soraluzeko udaltzainburua izan da. Ekainaren 7an hasi zen lanean eta Udalak jakinarazi duenez, lehen eguna Udaleko sail ezberdinetako arduradunekin elkartu zen lehen kontaktua egiteko. 35 udaltzainen ardura izango du aurrerantzean, besteak beste.

Arrieta: "Bilduren lehen urteko balorazioa, zero bat"

Arrasateko sozialistek gogor kritikatu dute Bilduk lehen urtean udal gobernuan egindako lana

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Arrasateko PSE-EEK agerraldia egin zuen barikuan Bilduren udal gobernuaren lehen urtearen balorazioa egiteko. "Zero bat izan da" adierazi zuen udalean sozialisten bozeramaile den Aritz Arrietak.

Arrietak udal gobernuari egotzi zion egoera ekonomikoa hobetzeko eta enplegua sustatzeko

neurrik hartu ez izana. Zinikotzat jo zuten sozialistek udalean bost liberatu egotea eta kritikatu zuten batzorde informatiboaren teknika direla gidari lana egiten dituztenak. Alkatearen lidergoia falta dela ere gehitu zuten.

Atez atekoa

Arrietak esan zuen atez ateko bilketa sistema oposizioari ezer informatu barik dagoeneko aurreratu dagoela. Edukiontzia baino sistema garestiagoa, zikinagoa eta deserosoagoa izango dela gaineratu zuen, baita atez atekoaren kontrako plataformarekin bat egin dutela adierazi ere.


Sozialistek jarrera proaktiboa dutela ere esan zuen Arrietak, eta iragarri zuen seguruenik moztu moduan, euren programako neurri eta proposamenak aurkeztuko dituztela udalean.



PSE-EEKo Aritz Arrieta. | TXOMIN MADINA

Iker Egañaren lanak ikusgai daude Harresi aretoan

Maiatzaren 28a ezkerko Iker Egaña artista oñatiarraren lanak ikusgai daude Harresi aretoan. Erakusketa osatzen duten koadroetan hainbat erretratu aurki daitezke, artistak bere ibilbidean eta estudioan zehar egindako hainbat obra. Ekainaren 12ra arte egongo da zabalik, honako ordutegian: astelehenean egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara eta zapatuan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.



Egañaren koadro bat. | IKER EGAÑA



Iturbide Egoitzan nagusien egindako musika emanaldi bat. | GOIENA

Iturbide Egoitzan Nagusien Astea ospatuko da gaur hasita egubakoitzera arte

- ▶ Datozen bost egunotan ekintza mordoa egingo dituzte, besteak beste, hitzaldiak eta kontzertuak
- ▶ Udaberri eta jai giroa izango dira protagonistak Iturbide Egoitzan

JAIONE CARINTERO | ARRASATE

Aurten ere, beste urte batzuetan bezala, Nagusiei eskainitako astea antolatuta dute Iturbide egoitzan. Bost egunez, askotariko ekintzak izango dira, besteak beste, kontzertuak, hitzaldiak eta txangoak. Ekintzen gelan izango dira ekitaldi horiek, gaur hasita egubakoitzera arte.

Gaur, astelehena, jarriko dute martxan ekintzaz blai dagoen egitaraua eta San Juanetako danborradako entseguak emango dio hasiera. Urtero moduan, San Juan jaiak gerturatzen doazela

entseguak egiten dituzte egunean bertan guztia ondo atera dadin.

Aurtengo berrikuntzetako bat, barreterapia tailerra izango da. Gaur bertan izango du lekua ekintza honek 17:00etan hasita eta Bizitzen Fundazioaren eskutik izango da. "Inoiz egin ez dugun ekintza bat da, baina guztia ondo irtetea espero dugu. Honen berri eman diegu nagusiei, eta ilusio-natuta daude", adierazi du Amaia Umerez antolatzaileak. Azken finen barre egiteko eta ondo pasatzeko aitzaki bat baino ez da izango.

Berrikuntza ez dena, berriz, ekintzarik arrakastatsua da; aurten ere, txangoak eramaten du lehen postua. Dagoeneko Iturbide egoitzako 50 nagusik eman dute izena eta laguntzaileekin batera, guztira 80 pertsona joango dira Logroñora antolatutako txangora. Urte guztiko ekintzarik interesgarriena bilakatu da, askok kanpora irteteko duten aukera bakarrenetarikoa baita.

Betiko ekintzak ere izango dira, besteak beste diana txapelketa, bingo txapelketa eta bolo txapelketa. Hauek betikoak diren

arren, beraien gehien gustatzen zaizkien ekintzak dira.

Udaberri eta jai giroa

Udaberria hasi zenetik nagusiak kalera gehiago irteten direnez beste umore batekin daude guztiak. Laister, gainera, herriko jaiak izango dira beraz jendea oso animatuta dago.

Nagusien Astea heltzeko gogotsu daude Arrasateko Iturbide egoitzako nagusiak. Amaia Umerez antolatzailearen esanetan, "Uste dut jende askok hartuko duela prestatutako ekintzetan

NAGUSIEN ASTEA, EGITARAUA

EKAINAK 4, ASTELEHENA

10:00 San Juanetako danborradako entseguak.

17:15 Barreterapia tailerra.

EKAINAK 5, MARTITZENA

10:00 Diana txapelketa.

17:00 Mexikoko abesti errezitara Alaitzen taldearen eskutik.

EKAINAK 6, EGUAZTENA

Egun guztirako txangoa Logroñora.

EKAINAK 7, EGUENA

10:00 "Nola bizi hobeto zahartzaroan" hitzaldia Jone Santos erizainaren eskutik.

17:00 Arrasate Musikaleko kontzertua.

EKAINAK 8, EGUBAKOITZA

10:00 Bolo txapelketa finala.

17:00 Bingo berezia opariek.

parte. Ni jende guztia animatzen ibili naiz eta egia esan eurak be interesa erakutsi dute antolatutako guztian. Antolatzen dugun aste berezi honi esker, egunero-kotasunetik irteten dira eta eurak bereziak sentitzen dira. Hori da gure asmoa".

Who The Bitch taldeak jarrera, estiloa eta sentimendua ekarri zuen gaztetxera

Hirukote japoniarrak itxi du Kooltur Ostegunak ekimenaren bigarren urtea; antolatzaileek adierazi dute gogotsu daudela datorren ikasturterako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Who The Bitch talde japoniarraren *junk rock* –hala deitzen diote– doinuek itxi zuten joan den astean Kooltur Ostegunak ekimenaren bigarren ikasturtea. *Lurrikara* eragin zuten gaztetxeko agertokian; jarrera eta estiloa barra-barra, eta egiten dutena benetan sentitzen duten ziurtasuna. Ikusmina piztu zuen Japoniako hirukotearen kontzertuak, 140 sarrera inguru saldu ziren-eta. Ez zuten *feedback* handirik lortu, ikusleendako erreper-torioa ezezaguna zelako, baina giro polita jarri zuten ikasturteko azken saioan.

"Eskerrik asko" esanez amaitu zuten kontzertua; eskerrak, euren eta antolatzaileei, Kooltur Ostegunak egitasmoagatik ez balitz ez genuke-eta halako talde batez gozatuko. Antolakuntzako



Who The Bitch hirukote japoniarrak gaztetxean, zuzenekoan. | JOKIN BEREZIARTUA

kide Iker Barandiaranen esanetan, 30 bat emanaldi izan dira aurten: "Kontzertuko 115 bat lagun izan dira, batez beste. Proposamen ezberdinak ekartzea lortu dugu aurten ere, eta jendeak ondo erantzun du. Talde asko pasa dira, baina, arakatu gero, oraindik zer ekarri egongo dela uste dugu".

Beraz, antolatzaileak gogotsu daude datorren ikasturtean ere eguenak kalitatez musikatzeko. Kontzertuak izango dira gehienak, baina bestelako kultura ekitaldiak ere ez dira falta izango.

ESANAK

"Taldea asko pasatu dira dagoeneko, baina, arakatu gero, oraindik egongo da zer ekarri"


IKER BARANDIARAN | ANTOLAKUNTZA

Euskal Herriko mapen gaineko erakusketa hilaren 7a ezker

Euskal Herriko mapak hizpide izango dituen erakusketa irekiko du Udalak egunean Kulturategiaren klaustroan. Jose Mari Espartzaren *Mapas para una Nación. Euskal Herria en la cartografía y en los testimonios históricos* liburua du oinarri erakusketarako, eta ekainaren 22ra arte egongo da bisitatzeko aukera.

Sendabelarren gainean gehiago jakiteko irteera aste bukaeran

Idurre Aranguren eta Itziar Egidazu arrasatearrek irteera antolatuta dute Oiarzunera aste bukaera honetarako. Gazte Bulegoarekin batera antolatuta dute sendabelarrak nola bildu eta horiei zein erabilera eman erakustea helburu duen irteera. Besteak beste, artrosiari aurre egin eta zauri ezberdinak osatzeko sendabelarrekin egingo dute lan.



Neska-mutiko taldeak barruko eskalada egiten, iazko kirol kanpainaren barruan. | KIROL ZERBITZUAK

Udako kirol kanpainarako monitorea behar dituzte

Udalak ekainaren 25etik uztailaren 20ra arteko kontratua egingo diete kirol irakasleei

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udaleko Kirol Sailak labetik atera berri du udako kirol kanpainaren triptikoa. Ikastetxeetan banatu dute eta dagoeneko egin dituzte aurre-matrikula eta zozketa. Kirol eskaintzak berrikuntza batzuk dituen arren, aurtengo berrikuntza nagusia hauxe da: Udalak hainbat monitorea kontratatatu ditu kirol eskaintzak emateko.

Hain justu ere, mini-tenis, tenis, squash, badminton, eskupilota eta jolasetarako, eta barruko eskalada, mendiko bizikleta eta multi-abenturarako monitorea behar dituzte. Interesatuak ekainaren 5a baino lehen egin behar dute eskaera udal bulegoetan.

Bete beharreko baldintzak hauek dira: 18 urte beteta izatea; Soin Hezkuntzako lizentziatura,

Hezkuntza Fisikoko espezializazioa irakasle ikasketetan; gorputz eta kirol ekintzak sustatzeko titulua edo kirol begirale titulua izatea; eta euskaraz ondo berba egitea.

Udalak ekainaren 25etik uztailaren 20ra arteko kontratua egingo die, eta lan-jarduna kirol eskaintzen ordutegiaren arabera izango da.

Behin betiko matrikula

Bestelakoan, udako kirol kanpainan apenas dauka berrikuntzarik. Hiru kirol eskaintza berri daude aurten: *Zaldian udan*, zaldi eta pottokekin hezkuntza jarduerak egiteko; *Patin-dantza*, patinekin dantzak egiten ikasteko; eta *Abiadurazko patinajea*, distantzia zehatz bat ahalik eta azkarren egiteko teknikak ikasteko.

Berriez gain, urteroko kirol eskaintza arrakastatsuenak ere egongo dira aukeran: tenisa, mini-tenisa, patinajea, igeriketa, eskalada, waterpolo, badminton...

Aurreko astean egin zuten aurre-matrikula eta izen-emate zerrenda zehazteko zozketa. Hori horrela, asteon, gaurtik egubakoitzera arte egongo da behin betiko matrikula egiteko epea. Norberak zozketan egokitutako egun eta orduan egin beharko du izen-ematea. Tokatu zaion ordu eta egunean agertzen ez direnek txanda galduko dute, eta bukaera arte itxaron beharko dute euren aukeraketa egiteko. Izen-ematea egiterakoan, ordainketa egin beharko da.

Adinaren arabera bi multzo egin dituzte kirol arduradunek: 3-16 urte artekoak eta 16tik gorakoak. Azken horiek kirol eskaintzaren gaineko informazioa gaurtik aurrera izango dute kiroldegiko bulegoetan. Antzerako kirolak izango dituzte, baina ordutegia moldatuta.

Txandak aukeran

Udako kirol kanpainak hainbat txanda izango ditu: hilaren 25etik uztailaren 6ra, uztailaren 9tik 20ra, abuztuaren 1etik 14ra, abuztuaren 21etik 31ra, eta txanda bakarra, ekainaren 25etik uztailaren 20ra. Azken hori kirol zehatz batzuetan bakarrik ematen da. Gehienetan, txanda aukeratu beharra egoten da.

Konpost ikastaro bi egingo dituzte: hilaren 5ean eta 12an

Debagoieneko Mankomunitateak konposta egiten erakusteko hainbat ikastaro egingo ditu herririk herri, bailara osoan. Oñatin bi egingo dituzte: hilaren 5ean eta 12an. Biak ala biak euskaraz egingo dituzte. Interesatuak Mankomunitatean eman behar dute izena. Informazio gehiago www.debagoiena.com atarian.

Parte-hartzaile guztiek konposta egiteko informazioa dakarren gida eta konpostagailua jasoko dituzte.

Diapositiba emanaldia, tailerra eta jaialdia Elkar Hezi ikastetxean

Ikasturtea bukatu aurretik, askotariko ekintzak egingo ditu Elkar Hezi ikastetxeak. Hilaren 6an Patagoniari buruzko ikus-entzunezkoa egingo dute. Gainera, hilaren 7an, sendabelarren gaineko tailerra eta sexualitatearen gaineko hitzaldia egingo dituzte DBHko eraikinean.

Azkenik, hilaren 8an, Haurreskolako eta Haur Hezkuntzako umeek jaialdia egingo dute: pailazoan emanaldia, afari-merienda gurasoekin, jolasak...

4.000 menu osasungarri baino gehiago Ulmarekin

Ulmak sustatutako *11 jatetxe 11 menu osasungarri* kanpainan 4.032 menu banatu dituzte, horretarako hitzartutako jatetxeetan. Helburu nagusia Ulmako bazkide eta langileei menu osasungarriak jateko aukera ematea zen. "Asko dira, egunero, etxetik kanpo bazkaltzen dutenak. Osasuntsu jateko aukera eman diegu", esan zuten antolatzaileek.

Martxoaren 5ean ipini zuten kanpaina martxan, eta 11 astean beste horrenbeste menu zozketatu dituzte parte-hartzaileen artean.

Barrakak dauden artean, kiroldegiko aparkalekua doan

Plazako aparkalekuan ezin daiteke aparkatu, barrakak daude eta. Hori horrela, eta barrakak herrian dauden artean -hilaren 12ra arte-, Corpus jaiak bukatu arte-, kiroldegi azpiko aparkalekua doaneko izango da herritar guztiendako. Barrera igota egongo da, eta ez da txartelirik hartu behar izango.

Horrekin batera, osasun etxeko, Olaiturriko eta Enpresagintza Fakultate aurreko aparkalekuak erabil daitezkeela gogoratu dute udal arduradunek.

'Parot doktrina'-ren kontrako mozioa

M.B. | OÑATI

Alberto Plazaolari ezarritako *Parot doktrina*-ren kontrako mozioa aho batez onartu zuten. Bilduk aurkeztutako mozioak hau zioen: "Plazaola berehala aske uzteko eskaera luzatzen diogu Espainiako Gobernari". Plazaolak 2016an aske beharko luke, baina *Parot Doktrina* aplikatuta, 2026ra arte luzatu diote zigorra. EAJK mozioaren alde bozkatu zuten, "*Parot Doktrina* ez da legezkoa" esanez.

Alberto Plazaola 1990eko azaroaren 17an atxilotu zuten, Frantzia. 1996ra arte hango hainbat espetxetan egon zen. Estradizioaren ondoren, Espainiako hainbat kartzelatan egon da. Egun, Galizian, Teixeira Curtisen dago, etxetik 650 kilometroa.



Musika eskolako haize-taldeko kideak Santa Ana kanpoaldean | LOREA GOMEZ

Haize-taldekoen doinuak Portuko plazatxoan

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako haize-taldekoek kontzertua egingo dute hilaren 8an, egubakoitza, Portu kaleko plazatxoan, 19:30ean.

Errepertorio zabala prestatu dute: Michel Telo eta Amy Winehouse kantuen moldaketak eta hainbat filmetako soinu ban-

dak joko dituzte; besteak beste, *Jurassic Park*, *Piratas de caribe* eta *James Bond* pelikuletako piezak joko dituzte.

Emanaldia bukatzeko sorpresa bat dute. "Martxoan Santa Anan egin genuen kontzertuan egondakoek badakite ze pieza joko dugun; gainerakoek Portuko kontzertura etorri beharko

dute", esan digu taldeko zuzendari Lorea Gomezek.

Bi urte eta erdi lanean

Haize-taldeak bi urte eta erdi daramatza lanean. Beñar Markinez, Xabier Urbina, Olatz Kortabarria, Joseba Jorda, Bixen Ibarondo, Eneko Agirre, Markel Bellido, Danel Iñurritegi, Ander Biain, Iñigo Barinagarrementeria, Benjamin Maiztegi, Santi Mendiola, Nerea Alonso, Jone Biain, Izaskun Barreña, Imanol Mugar-tza, Araceli Guridi eta Lorea Gomez dira taldeko kideak.



Angel Rekalde (irudian) eta Beñi Agirre izango dira biharko hizlariak.

Nabarralderen eskutik hitzaldiak bihar eta hurrengo martitzenean

'Konkistak 500 urte' hitzaldia bihar, hilak 5, Irizar jauregian, 19:00etan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Nabarralde elkartearen eskutik, bi hitzaldi izango dira Bergaran datozen egunotan. Lehenbizikoa bihar, martitzena, Irizarren, 19:00etan: Beñi Agirrek eta Angel Rekaldek *Konkistak 500 urte* izenburuko hitzaldia egingo dute. Soziologian eta Zientzia Politikoetan lizentziatua da Rekalde tolosarra eta hainbat lan eman ditu argitara. Beñi Agirre historialaria da, hernaniarra sortzez.

Hurrengo hitzordua datorren martitzenean, hilaren 12an, izan-

go da, ordu eta toki berean. Oskar Arantzabal izango da hizlaria. Arantzabal (Eibar, Gipuzkoa, 1967) ekonomialaria da. Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen, eta hamabi urtez aritu da esportazioan lanean. *Independentziaren biderragarritasun historikoa* gaia jorratuko du Bergaran. Hitzaldiok, esan bezala, Nabarraldek antolatu ditu, Udalaren laguntzaz.

Nafar Estatua

Memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ezagutzeko ahaleginean

urte asko daramatzate lanean Nabarralde elkarteko kideek. Tasio Agerre da elkarteko presidentea eta haren hitzetan "guretzako, nafar Estatuko hiritarren baldintza politikoa bete-betean berreskuratzea gure oinarrizko eskubide demokratikoa da, nahitaezkoa gainerako eskubideak modu egokian gauzatzeko. Gizakiaren zein gizataldearen presentzia esan nahi du honek munduko kultur, hizkuntza eta ekonomiaren alorrean". Hitzaldietara joateko gonbidapena luzatu dute antolatzaileek.



GOIENA

Argazki erakusketa Aroztegin

Bergara Hiria argazki lehiaketako erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan, ekainaren 25era arte. Jorge Murgiondo, Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga bergararrak daude sarituen artean aurrean. Erakusketan lehiaketako 40 argazki onenak jarri dituzte ikusgai, tartean Andres Indurain (koloretako irabazlea) eta Luis Pontijas (zuri-beltzeko lehen saria) argazkizaleenak. Ohiko ordutegian izango da zabalik Barrenkaleko aretoa.

Luis Laskurainen koadro bat zozketatuko du Musika Eskolak ekainaren 9ko kontzertuan

Luis Laskurain margolariak koadro bat eman dio dohaintzan Musika Eskolari, *Peter Pan* musikalaren finantziazioarekin laguntzeko. Koadroaren zozketarako txartelak euro baten truke daude salgai. Laskurainen bi koadro jarri dituzte ikusgai Biltokin eta horietatik bat aukeratu ahal izango du irabazleak. Ekainaren 9ko Udaberriko Kontzertuan egingo dute zozketa.

Etor Larrañaga bergararra surf irakasle dabil Debako Surf Eskolan; ikastaroak eskaintzen dituzte

Etor Larrañaga bergararra irakasle lanetan dabil Debako Surf Eskolan eta uda sasoian eskolak eskaintzen dituzte, adin guztien dako. Etorrekin batera beste lau irakasle dardute. Ekainean hasi eta irailaren 30era arte dago aukera surf ikastaroak egiteko. Edozein argibidetakoa ondoko telefono zenbakira deitu dezakete interesatuek: 628 52 96 95.

Internet ikastaroak eta beste hainbat eskaintza datozen asteotan Irizar jauregiko KZGunean

Internet ikastaroak iragarri ditu KZGuneak. Hain zuzen ere, ekainaren 4tik 15era egiteko aukera izango da, goizez edo arratsalde. Google Aps ikastaroak ere egongo dira hilaren 18tik 28ra. Eta, horrez gain, beste hainbat ikastaro daude aukeran: *Zure seme-alabak babestu*; *Informatika Lainoan*; *Ebay*; *Paypal*; *Itzultzaileak*; edota *QR kodeak*. Argibideak: www.kzgunea.net edo 943 02 36 26.

Odol ateratzea etzi, eguaztena, anbulatorioan; herriko odol emaileen parte hartzea eskatu dute

Odol Emaileen Elkarteak deituta, eguaztenean, hilaren 6an, odol ateratzea egingo dute anbulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era, hain zuzen. Herriko odol emaileen parte hartzea eskatu dute arduradunek. Ekainaren 20an izango da hileko beste odol ateratzea. Elkartearekin harremanetan jartzeko: 943 76 36 90 (Antonio Herzog) edo 943 76 22 36 (Dulce Rodriguez).

Udaberriko Kontzertuko afarirako txartelak bihar arte eskuragarri

E.M. | BERGARA

Udaberriko Kontzerturako sarreak eta ondorengo herri bazkarrako txartelak salgai daude. Alde batetik, sarreak Musika Eskolan eskura daitezke, 3 euroren truke, aste barruan 15:30etik 19:30era. Bestetik, afarirako txartelak eskuratzeko azken eguna bihar, martitzena, izango da. Musika Eskolan daude salgai baita. Haurrendako prezioa 6 eurokoa da eta helduendako, 16 eurotan.

Udaberriko Kontzertua zapatuan, ekainaren 9an, izango da Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Afaria bertan izango da, 22:00ak aldean.

Koadro baten zozketa

Bestalde, *Peter Pan* musikalaren finantziazioan laguntzeko, Luis Laskurain margolariak eskainitako koadro bat zozketatuko dute zapatuan. Zozketarako txartelak euro baten truke eskura daitezke ondoko lekuetan: Ogizunen, Olaben, Larrañaga gozotegian, Raizabalen, Cafe Bergaran, Paulaner tabernan eta Leturia harategian. Luis Laskurainen bi koadro daude ikusgai Biltokin, Barrenkalean, eta horietako bat eramango du zozketako irabazleak. Zozketa zapatuko Udaberriko Kontzertuko afal ostean egingo dute.



Zapatuan izango da Udaberriko Kontzertua, Udal Pilotalekuan. | GOIENA

Futbol-11 txapelketako lehenbiziko jardunaldia gaur Ipintzan

Hamalau talde izango dira lehian; futbol-8koan, seina talde daude gizonezkoetan eta emakumezkoetan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ipintzako futbol-11ko txapelketako lehenbiziko jardunaldia jokatu da gaur, astelehena, 19:15ean hasita: lehen partiduan La Juvek eta Oxinolak neurtuko dituzte indarrak eta jarraian, 20:15ean, Langosta eta Santana taldeak izango dira aurrez aurre.

Aurtengo ekitaldian 14 talde izango dira lehian, bi multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko onenak sailkatuko dira azken kanporaketarako eta finala uztailearen 13an izango da. Agorrosinen jokatu da finala.

Bihar, martitzena, beste bi partidu izango dira Ipintzan, gaurko ordu berean: Irama eta Getokuak taldeen artekoa jokatu da lehenbizi eta ondoren, Ndank Ndank taldeko senegaldarrek Patixokuak taldearen aurka jokatu dute, 20:15ean. Ndank Ndank taldekoekin girorik ez da faltako: musikarekin eta guzti joango direla iragarri dute. Eguenean, hilaren 7an, bestalde, beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: Beti Gorri-Aranzadi 19:00etan eta Skalibur-Badulake 20:00etan.



Aste barruan jokaten dira Ipintzako futbol txapelketako partiduak. | GOIENA

Futbol-8koak ere bai

Futbol-8ko txapelketak ere jokatzen ari dira egunotan Ipintzan. Gizonezkoen kategorian sei taldek eman dute izena eta emakumezkoetan, beste horrenbeste talde daude. Bietan ere finalak uztailearen hasierarako aurreikusita

daude. Antolatzaileak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.

2001eko mutikoendako deia

Bestalde, Bergara KEk deia egin die futboleko jokatu nahi duten mutiko gaztetxoei. Datorren den-

boraldian alebin mailako taldea osatzeko asmoz, zapatuan, ekainaren 9an, entrenamendu saioa izango da Ipintzan. 2001. urtean jaiotako mutikoak joan daitezke entrenamendura. Futbolerako arropa eta botak eramateko eskatu diete.

OHARRAK

KULTURA TALDEEKIN BILERA BIHAR

Udalak bilera baterako deia egin die kultura talde eta elkartei, 2012an garatuko dituzten jardueratarako diru-laguntzak emateko oinarrien nondik norakoak azaltzeko. Bihar, martitzena, da bilera kultura etxean, 18:00etan.

PINTURA ESKOLAK GAZTETXOENDAKO, UDAN

Beart elkarteak 6-13 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako pintura eta marrazketak ikastaroa antolatuta du uztailearen 2tik 27ra, aste barruan, 10:30etik 12:30era. Izen-ematea eta argibideak: 653 71 53 82 edo 635 71 32 69.

JOSKINTZA IKASTAROA

Udalak, Osintxuko Herri Batzarrek eta Bizikasik antolatuta, joskintza ikastaroa izango da Osintxun ekainaren 5etik aurrera. Izen-ematea (10 euro) Osintxun, Euskalduna tabernan edo Txuringon, edo Bizikasira deituta: 943 76 93 94.

MAKILLAJEA JARDUNEKIN

Jardunek antolatuta, Ihintza Orbegozok makillaje ikastaroa eskainiko du kultura etxean. Bi saio izango dira ekaineko bi zapatutan, 10:30etik 12:00etara. Argibideak 943 76 36 61 telefonoan.

Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkutzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu,
ONGI EGIN badezakegu?



Nahastutako bilketa = Kutsadura
= Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea
= Osasuna

ondo
egitera
goazz



ARETXABALETAKO

Musika, ikuskizunak, hitzaldiak eta erakusketak ekaineko gidan

Arkupen, hango Zaraia aretoan eta plazan izango dira hitzorduek



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. | BIZKAIA.COM

OIHANA ELORTZA | ARETXABALETAKO

Eskulan eta zeramika ikastaroko lanen erakusketa zabalduko dute gaur bertan Arkupen eta hilabete guztian egongo da ikusgai. Horrez gain, piano emanaldia, *Bildurra Hiruatzen* antzezlan, *Nire maletatxo* haurrendako ikuskizuna, haur etxeei buruzko hitzaldia eta pintura, eskulan eta zeramika ikastarok antolatutako Udaleko kultura zerbitzuak ekainerako. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, esaterako, ekainaren 13an etorriko dira herriko plazara *Zazpikoloro* ikuskizunarekin.



KURTZEBARRI

Bertso lehiaketan sari berezia

Aretxabaleko Kurtzebarri eskolako Naroa Otsoa (3. maila) eta Naroa Iturbe (4. maila) ikasleek, aipamen berezia jaso dute eskola arteko 32. bertsopaper lehiaketan. Egubakoitz iluntzean egin zuten sari banaketa Andoainen eta gurasoekin joan ziren Otsoa eta Iturbe euren sariak jasotzera. Zorionak!

OHARRAK

ELKARTASUNARI BURUZKO HITZALDIA BASOTXON

Kutzak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, belaunaldien arteko elkartasunari buruzkoa egingo dute Basotxon eguean, ekainak 7, 17:00tan.

'ERRAUSKETARI ATEAK IXTEN' DOKUMENTALA

Dokumentalaren emanaldia eguean, ekainak 7, izango da, 19:00tan kultura etxean. Ondoren, ekainaren 17an Donostiako Saguesen egingo duten mosaiko erraldoiaren inguruan jardungo dute.



ARETXARTE

Azken bi sariak ere eman ditu Aretxarte elkarteak

Pedro Etxebarriarteunek maiatzaren 24an Orly tabernan bermut bat hartzeagatik Txillarri belardendak emandako saria jaso zuen; 50 euroko balioa duen saria, hain zuzen ere. Bestalde, Miren Berezibarrek maiatzaren

30ean M5 kirol dendan eguneko lehenengo oinetakoak erosteagatik, Jon Diaz harategian gastatzeko 50€ko bonoa irabazi zuen. Aretxarte elkarteak ordezkariak eman zizkieten sariak. Zorionak!

ARETXARTE

ESKORIATZA

SMS zerbitzua erabiliko du Udalak mezuak bidaltzeko

Modu horretara telefono gastua txikitzea da helburua


OIHANA ELORTZA | ESKORIATZA

SMS bidez helaraziko ditu oharrak aurrerantzean Udalak. Liburutegiko zerbitzuarekin probatu zuen esperientzia hori Eskoriatzako Udalak eta ondo funtzionatzatzen duela ikusita eta modu horretara telefono gastua txikitu egin daitekeela ikusita, zerbitzu hori udaleko beste departamentuetara zabaltzea erabaki dute.

Departamenduka

"Herritar gehienek mobil zenbakia uzten dute eurekin harremanetan jartzeko. SMS sistemarekin, mezua jasoko dutela ziurtatzen dugu, telefonoz deitu arren beti ez dutelako posible izaten deiarri erantzutea", azaldu du Beñat Herce alkateak.

Liburutegian probatu zuten sistema, herritarrek eskatuta zuten liburua heldu dela abisatzeko, adibidez, eta egun ere SMS



Begarako udal kirol zerbitzuak ere SMS sistema darabil. | O.E.

bidez bidaltzen dituzte horrelako abisuak edo oharrak udal bibliotekatik. Aurrerantzean gainerako udal zerbitzuek ere berdin egingo dute. "Ez dago esaterik kirol zerbitzua edo gizarte zer-

bitzua, adibidez, noiz hasiko diren horretan. Departamendu bakoitzak aztertuko du zertarako erabil dezakeen SMS sistema eta horren arabera hasiko dira erabiltzen", gaineratu du Herce.

Atez atekoaren proposamena gaurko osoko bilkuran

O.E. | ESKORIATZA

Hiri hondakinen kudeaketari buruzko mozioa aurkeztuko du Bilduk gaurko osoko bilkuran. Atez ateko sistema onartuta, 2013ko irailean aplikatzea izango da udal gobernuaren asmoa.

Urtzelai eta Ezpeleta

Bestela, gaurko osoko bilkuren gai zerrendan agertzen dira zinegotzi batek karguari uko egiten diola eta haren ordezkoren proposamena. Bilduko Leire Urtzelai egingo dio uko gaur zinegotzi karguari, arrazoi pertsonalengandik. Haren kargua hartzeko, berriz, Igor Ezpeleta proposatuko dute.

Osoko bilkura arratsaldeko 18:30ean izango da ohienez, Eskoriatzako udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan.

OHARRAK

KANABISA

Kanabisari buruz legeak dioena, landatzea legezkoa den edo ez, kontsumorako eduki daitekeen edo ez ... Zalantza guztiak argitzeko hitzaldia egingo dute eguaztenean, 18:00tan, kultura etxean.

JUBILATUEN BAZKARIA

Hilaren 17an izango da eta izena eguna baino lehen eman behar da Olazarren.

Eskoriatza Kirol Elkartearen jaia egingo dute zapatuan

Saskibaloitza partiduak, areto futbola, moto kontzentrazioa, herri bazkaria, musika, parrillada ... eta II. Gabaz Takarran gaueko mendi lasterketa izango dira zapatuan Eskoriatzan. Mendi lasterketa ezik, gainerako kirol hitzordu guztiak kiroldegian izango dira eta eguneko beste ekitaldi denak, herriko plazan.



Konpostagailura hondakinak botatzen. | L.Z.

ELGETA

Konpostagailua eskatu dute beste 16 elgetarrek; gaur ikastaroa izango dute

Mankomunitateak ordu eta erdiko ikastaroa eskainiko du gaur, astelehena, udaletxean; interesatuek bertan jasoko dute etxean ipintzeko konpostagailua

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Artelatzen enpresako Arantxa Oriak gidatuko du gaur, astelehena, Elgetako udaletxean egingo den autokonpostari buruzko ikastaroa. Ordu eta erdi iraungo du saioak, eta, hutsetik hasita, autokonpostatzearen gaineko informazioa emango dute. Debagoieneko Mankomunitateak antolatu du ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, eta doan da.

Artelatzen arduradunek aurreratu dutenez, lau dira autokonpostaren inguruan argi izan behar ditugun oinarrizko kontzeptuak: konpostagailua ipintzeko leku egokia aukeratu behar dugu, hezetasuna orekatu egin behar dugu, konpostagailura hondakin organiko freskoa zein lehorra biak bota behar ditugu, eta prozesua egoki burutzeko ondo nahastu

behar ditugu bertan pilatutako hondakinak.

Gaurko ikastaroan, konpostaren inguruko oinarrizko ezagutza jasotzeaz gain, konpostagailua bera, konpostaren inguruko gida bat eta harremanetarako telefono bat jasoko dituzte interesatuek. Konpostagailua nola muntatu behar den ere azalduko dute. "Helburua da etxeko konpostatzea bultzatzea", adierazi dute arduradunek.

Lerrook idazterako, 16 ziren Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako ikastaroan parte hartzeko izena eman duten elgetarrak; Debagoienean, guztira, 230 lagunek eman dute izena. Mankomunitateak emandako datuen arabera aurretik 40 bat konpostagailu daude Elgetan. Izen-emateak zabalik da gaur eguerdira arte. Debagoieneko Manko-

munitatera deitu behar dute interesatuek: 943 79 33 99.

Udalak inkesta etxerik etxe

Ikastaro horrekin lotuta, Elgetako Udalak galdera batzuk banatu ditu etxerik etxe. Besteak beste, udal arduradunek jakin gura dute lorategirik edo baratzerik gabeko zenbat herritar dauden interesatuta konposta egiteko.

Bisita praktikoa, eguenean

Eta eguenerako, hilak 7, etxean konpostagailua duen herritar baten esperientzia bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da herrian. Elgeta Zero Zabor Taldeak antolatu du bisita, 19:30erako. Parte-hartzea irekia da. Bihar, martitzena, *Errausketari ateak ixten* dokumentala emango dute kultura etxean, 19:30ean. Argibideetarako elgetazz@gmail.com.

guraso elkarteko kideek. Horren guztiaren berri aurrerago eman-gotutela jakinarazi dute.

Irteera eta San Juan bezpera

Orain ekainean ere badaukate irteera bat egiteko asmoa, baina hainbat ospakizun tarteko azken aste bukaerarako utziko dute. Bitartean irteeraren nondik norako guztiak lotuko dituzte.

Aurretik ludotekaren ikasturteari esango diote agur, ekainak 22 inguruan, eskolako ikasturtearen bukaerarekin batera. Eta gero San Juan bezpera ospatuko dute, hilaren 23an, zapatua. Sua piztu aurretik hainbat ekin-tza egingo dituzte girotzeko.

ARAMAIO

Herritarren babes eta bazkideen ekarpenak behar ditu Irikiñ taldeak

Barazki eta frutekin kontserbak egiteko sortu berri den taldea da, ABB fundazioaren barruan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Barazki eta frutekin kontserbak egiteko Irikiñ taldea sortu da Aramaion, Aramaio Basarri Barri fundazioaren barruan. Joan den astean egin zuten aurkezpena, Sastiñan; taldearen ibilbidea eta helburuak azaldu zituzten, martxan jartzeko beharrezkoak diren bazkideak lortzeko asmoz.

Bazkide horiek Aramaiokoak izan beharko dute, orain arte taldea sortzeko lanean aritu den Kepa Lizarralde kideak adierazi duenez: "Bazkide egiteko deialdia aramaioarrendako da, hasiera baten, baina gero, elkartearen jabeak bazkideak izango direnez, eurek erabakiko dute beste herri batzuetara

zabaldur edo ez". Hori bai, bazkide ez direnek ere izango luke aukera Mendiolako zentroko instalazioak erabili eta kontserbak egiteko. Beraz, Irikiñ taldeak aramaioarren babes eta bazkideen ekarpenak behar ditu lanean hasi aurretik.

Interesatuak, hilaren 8rako

Urki Larrea taldeko kideak jakinarazi zuen izena eman daitekeela ekainaren 8a baino lehen. Nola? Aitor Larrañaga ABBko Udalaren ordezkariari deituta (945 44 50 16). Lanerako lokala badute Mendiolako Berrikuntza eta Ikerketa Zentroan, eta hurrengo astean egingo dute bisita, interesa agertu dutenekin batera.



Irikiñ taldeko kideak, joan den asteko aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

ANTZUOLA

Arrola Mendi taldeak irteera egingo du ekainaren 10ean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ekainerako irteera antolatu du Antzuolako mendi taldeak. Ekainaren 10ean, domekan, egingo da ibilaldia: Udanatik Arrolara eta handik Antzuolara. Asmoa da eguerdirako Antzuolan izatea.

Irteera 08:30ean Olanaren parean izango da. Izena emateko azken eguna ekainaren 6a, eguaztena, da. Olanango egoitzara jo dezakete interesa dutenek, 19:00etatik 19:30era. Baina ekainaren 5a baino lehen 664 27 25 19 telefonora deituta eta e-postaz ere eman daiteke izena: arrolamt@gmail.com helbidean, hain zuzen ere.

Ekaineko hitzorduak

Udaberriarekin batera, lehen festei hasiera emango zaie bari-kuan Ondarre auzoko jaiekin

batera. Ekainaren 8tik 10era bitartean gaztetxoendako jokoak, krosa, auzo afaria, erromeria eta Corpus eguneko prozesioaz gozatzeko aukera izango da, besteak beste.

Ekainaren 16an, *Ez dot moztuko bizarra* eguna egingo da. Eskubide zibil eta politikoen alde egiteko herritar talde batek sortu duen taldea eta egitarau zabala prestatu dute hilaren 16rako. "Betikoa ez den jendea etortzeko ahalegin berezia egin gura dugu", azaldu zuten aurkezpen egunean.

Ekainaren 22an hasita Kalebarren jaiak ospatuko dira, eta, horiekin batera, sanjuanak. Eta, nola ez, ekainaren 30ean San Martzialgo festak etorriko dira ekaina borobiltzeko eta herriko jai nagusiei lekua uzteko asmoz.

LEINTZ GATZAGA

Uztaileko udalekurik ez antolatzea erabaki dute Gureleko kideek

Ekain bukaeran irteera bat egiteko asmoa dute eta uztailean aparteko egunak ospatu

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkartek ez zuen uztaileko udaleku irekirik antolatu iaz, eta aurten ere ez dute egingo. Ez behintzat egitarau zehatzarekin araututako udalekurik. Hala ere, irteerak eta aparteko jai egunak ospatuko dituztela herriko neska-mutikoe-kin iragarri dute.

Saso baten bi astetako udaleku antolatuak, begirale eta guzti, egiten zituzten Debagoieneko herri gehienetan legez, baina azken bi urteotan era librean egiten dituzte: "Irteeraren bat edo beste egingo dugu, Dorleta inguruan kanpaldia egiteko asmoa ere badaukagu, eta beste ekintza batzuk ere izango dira" diote

Ekainaren 7tik 9ra, zatoz

GORBEIARA ERDI AROKO ARTISAUTZA AZOKARA

www.centrocomercialgorbeia.com



EUSKAL GOZOGINTZA,
ZEZINA, BARKILLOAK,
JANARI-DENDA ETA KREPETEGIA,
IMITAZIOZKO LARRUKIAK,
MINERALAK, EGURREZKO JOSTAILUAK,
USAIN ESENTZIAK, GAZTAK,
ESOTERISMOA,
ANDALUZIako TABERNA,
ARABIako TETEGIA, EGUR LABEA,
GOMINOLAK ETA BELARRAK,
IZOZKI ETA TXURROAK,
FOSILAK, INTSENTSUAK,
KUXIN TERMIKOAK, IMITAZIOZKO BITXIAK,

TAROTA,
ESKUZKO ZALDIKO-MALDIKOA,
SWAROVSKI ZINTZILIKARIOAK,
HAIZEMAILE MARGOTUAK,
TRAPUZKO PANPINAK,
EGURREZKO LOREAK,
ARROZ GRABATUAK



GORBEIA
10 URTE AURREZTEN

KIROLA

ZAZPINAKO ERRUGBIA

Bera Bera eta Uribealdekoa abilenak zazpinako torneoan

- ▶ Bera Berak finalean 43-7 irabazi zion Getxori
- ▶ Uribealdeko neskek bi partiduak irabazi zituzten

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasaldeko lehenengo partiduak zapo garratza utzi zuen Arrasateko zaleengan. Izan ere, Kanpanzar ART taldeak Bera Bera izan zuen aurrean, ondoren torneoa irabazi zuen kontrario gogorra: "Partiduko lehenengo minutuetan gauza izan gara kontrarioari eusteko", baina Arrasateko entrenatzaile Igor Isasik onartu moduan, segituan igarri zen Bera Bera ohorezko mailan jokatzeko (45-0).

Ondoren hasi ziren gainontzeko partiduak jokatzeko, eta Hernani, Getxo eta Bera Berakoek berehala erakutsi zuten beste maila batean zeudela: jokalaria azkarrak, pase neurtuak, eta kontrarioaren defentsa-lerroa gainditzeko aparteko gaitasuna. Arrasatekoek bigarren porrota jaso zuten, eta baita hirugarrena ere. Zuri-moreek 22 urteko batezbestekoko taldeak, eta kontrarioak, berriz, jokalaria azkar eta indartsuak: "Joan den astean bertan gurekin errugbian jokatzeko hasi den gazte bat dugu, eta berdegunean dago. Hori positiboa da, alegia, aurtengo denboraldian gazteek izan duten jarrera ona".

Arrasateko gazteak ez ziren, baina, jarrera onaz konformatzen. Etxean jokatzeko, etxeko zaleen aurrean, eta partidu bat bestearren

ondoren galtzen. Garaipen-gosea areagotzen joan zitzaien, eta Isasiren mutilen arrasaldeko azken partiduan Gaztedik ordaindu zuen amorru hori guztia, izan ere, Arrasatekoak euren gainetik pasa ziren (50-0). Hala, hirugarren

denborara arantza aterata erretiratu ziren etxeko mutilak.

Uribealdekoa eta Bera Bera

Frantziatik inongo ordezkariak etorri ez izanak gatz apur bat kendu zion torneoari, baina gainontzeko taldeak arduratu ziren hutsune hori betetzeaz. Hala, Getxo eta Bera Bera iritsi ziren finalera, eta azken horiek gailendu ziren (45-7). Emakumezkoetan hiru talde lehiatu ziren Mojategiko berdegunean: Getxo, Uribealdekoa eta Hernani. Euren artean lehia parekatuak izan ziren. Hala, Uribealdeko neskek izan ziren onenak, 15-12 irabazi zioten eta Hernaniri, eta 20-16 Getxori.

Astelehenean, *Harmailatik* kirol saioan Arrasate Kanpanzar Errugbi Taldeko ordezkariak izango dira, torneoaz eta denboraldiaz berba egiten.

ESANAK

"Errugbian jokatzeko hasi berri direnak ditugu taldean, eta hori oso ona da; besteak talde onak dira"

"Denboraldian zehar jokalariek izandako jarrera azpimarratuko nuke, oso gustura nago horrekin"

IGOR ISASI | ENTRENATZAILEA

DATUA

9

TALDE

Azken orduko hutsegiteak tarteko guztira 9 talde izan ziren Mojategin lehiatzen.



Getxoko eta Hernaniko jokalaria, baloiarekin borrokan; bi talde horien arteko emaitza 12-0.



Bera Berako jokalaria, Uribealdekoen kontra, pasea ematen. | JULIO CALLEJA



FERNANDO JONA
URIBEALDEA TALDEA

"Denboraldi amaiera beheranzko joeran egin dugu, eta Arrasatera ondo pasatzera etorri gara. Noski, emaitzek laguntzen badute, askoz ere hobea. Hirugarren denboran, berriz, ez dugu presarik izango, bihar jai-eguna da-eta".



IGOR ISASI
ARRASATEKO ENTRENATZAILEA

"Lehenengo bi partiduak galdu egin ditugu, baina normala da, ohorezko mailan dabilzan taldeak direlako. 22 urteko batezbestekoa duen taldea dugu, oso gaztea, baina aurtengo denboraldian izan duen jarrera ona izan du taldeak, poztekoa da hori".



IGOTZ GALLASTEGI
NAZIOARTEKO EPAILEA

"Zazpinako modalitatea oso azkarra eta gogorra da, eta jokalaria protesta egiteko oxigeno barik geratzen dira. Guk ere hirugarren denboraz gozatuko dugu, bestela ez ginateke torneoaren etorriko [Barre]".



MIREN BILBAO
GETXO

"Txapelketara bi partiduak irabazteko asmoaz etorri gara, baina lehenengo partiduak ez dugu batera onak egin. Orkatilean arazo txiki bat izan dut, baina gustura ibili naiz. Bigarrean bai, orduan hobeto ibili gara".



ELISABETE CERRILLO
URIBEALDEA

"Ez genuen uste torneo irabaziko genuenik, egia esateko, partidu guztiak oso parekatuak izan dira. Orain bai, freskagarri bat edaten nabil, kirolariak garelako, baina ondoren bai, joango gara garagardoren bat edatera [Barre]".

MENDIA | Aiba! euri eta lanbro artean, errekor berria Hiru Handiak proban | **24**



26koa izan zen. | JULIO CALLEJA

ATLETISMOA

Korpusetako Nazioarteko lasterketak urteurrena beteko du datorren zapatuan

Puntako korrikalariak batuko dira Oñatin, oraingoz, hemezortzi atleta bai

AKETZ | ARRASATE

Datorren zapatuan, ekainak 8, Korpus bezperako nazioarteko kros lasterketa ospatuko dute Oñatiko kaleetan zehar. Elite mailako 18 atleten parte-hartzea espero da, eta egubakoitzeko aurkezpenean antolatzaileek azpimarratu moduan, ikuskizuna ziurtatuta dago.

Hamar urte lasterketak

Dagoeneko hamar urte igaro dira Korpus bezperako lehendabiziko kros lasterketa egin zutenetik. Hala, goizean Antxintxiketan taldeak antolatuta eskolarteko infantil eta gazte mailen lasterketak egingo dituzte, eta arratsaldean izango da elite mailako txanda, 19:00etan.

Asier Olasagastik azaldu bezala, krisia dela eta, atleta afrikarrak ekartzeko zailtasun handia izan dute antolatzaileek, "Ez baitago lasterketa nahikoa estatu mailan, eta Keniako lasterkariak ekartzea ezinezkoa



Korpus lasterketako aurkezpeneko erretratuak. | ARATZ LOSADA

izan da. Hala ere, maila goreneko atletak izango dira gurean, eta tartean afrikarren artean estatuko lasterkari onenariakoak ere". Oraingoz 18 lasterkariren parte-hartzea ziurtatuta dago,

eta tartean izango dira etiopiarrrak, marokoarrak eta baita eritrearrak ere. Eta eurekin batera, inguruan lasterketa asko irabazi dituen David Gartzia durangarra.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

7 URTEKO BERMEA **PRODUKTU GUZTIETAN**

 1200 b/min 6 Kg A++ Saillapen energetikoa GARBIGAILUA F-6012 299 €	 1200 b/min 7 Kg A++ Saillapen energetikoa GARBIGAILUA F-7212X 399 €	 1200 b/min 8 Kg A++ Saillapen energetikoa GARBIGAILUA F-8212 399 €	 A+ Saillapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13 330 €	 A+ Saillapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13X 375 €
 A+ Saillapen energetikoa LABEA 6H-760AX 430 €	 A+ Saillapen energetikoa INDUKZIO PLAKA IF-3BS 399 €	 1850 x 600 x 600 *NO FROST A+ Saillapen energetikoa HOZKAILUA AC-185NF 420 €	 1850 x 600 x 600 *NO FROST A+ Saillapen energetikoa HOZKAILUA FFJ-6725 545 €	 2000 x 600 x 600 *NO FROST A+ Saillapen energetikoa HOZKAILUA FFK-6835X 625 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batuz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A++ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
 Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 **ZAPATU GOIZETAN ZABALIK**



Aiba! mendi martxako mendizale talde bat, goizeko lehenengo orduko euri zaparradaren ostean. | GOIENA



Mendizaleak, Murugaingo magalean. | GOIENA



Mendizale talde bat jateko eta edateko postu batean. | GOIENA

MENDI IBILALDIA

Aiba! mendi martxa euri eta lanbro artean egin behar izan zuten mendizaleek

Domekan, aurreko edizioekin alderatuz mendizale gutxiagok parte hartu zuten Aiba! zeharkaldian

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Aiba! mendi martxako bosgarren edizioa ospatu zuten atzo. Ibarrean barrena egiten den mendi zeharkaldiari eguraldiak ez zion lagundu atzokoan. Goizean goiz Arrasateko Monterron jauregitik 170 mendizale abiatu ziren eta Seber Altube plazan eman zioten bukara ibilbideari, arratsaldean.

Aurtengo edizioan ere bakoi-tzaren mailaren arabera bi ibilbide ezberdin egiteko aukera izan zuten parte-hartzaileek, *Mari* eta *Azpiko*. Baina esan bezala, eguraldi kaxkarra egin zuen eta antolatzaileek ibilbidea moldatu beharra izan zuten. "Hasieran ibilbidea luzea aukeratu duten mendizale batzuk Udalatx igotze-

ko aukera izan dute. Baina eguraldia kaxkartzen joan da eta Anboto ere ibilbidetik kendu behar izan dugu", adierazi zuten antolatzaileek. Mendizaleek berez ondo dakite eguraldi txarrarekin arriskutsua dela Anboto eta Uda-

latxera igotzea. Baina orokorrean parte-hartzaileak pozik azaldu ziren, bustita, baina oso gustura. Izan ere, Aiba!-k ez dauka lehia-kortasunerako grinarik, laguna atzean utzi baino lagunartean egiteko pentsatuta dagoen martxa da.

170 mendizale

Aurtengoan 170 mendizale bakarrik parte hartu dute (aurrekoetan 300 lagunek) eta antolatzaileen ustetan, "Ez dugu uste aurtengo edizioak Hiru Handiak proba ezagunarekin bat egiteak eraginik izan duenik". Dena dela, hurrengo edizioari begira egoera aztertuko dutela ziurtatu dute antolatzaileek.

DATUA

170

PARTE-HARTZAILE

170 lagunek parte hartu dute aurtengo Aiba! mendi martxan.



DAVID MARTIN
AZKOITIA

"Oso gustura bukatu dut ibilbidea, egia esan, pozik. Eguraldi txarra pena bat izan da, ibilbide luzea egiteko asmoa neukan baina Anboto igotzea ezinezkoa zen. Eurria eta lanbroarekin oso arriskutsuegia zen".



SEBAS ARANZABAL
ANGIOZAR

"Aurtengoa nire laugarren aldia da Aiba!-n parte hartzen dudala. Oraingoan ibilbide motza aukeratu dut eta uste nuena baino errazagoa izan da. Hasiera eguraldi kaxkarra ein du, baina gero giro onean bukatu dugu ibilbidea".



AITOR LASKURAIN
ARRASATE

"Orain arte edizio guztietan parte hartu izan dut. Aurten eguraldi eskasa egin duen arren, mendi martxa nahiko ondo joan da. Nik ibilbide laburra egin dut, eta oso pozik nago ibilbidean zehar izandako sentsazioekin".

Hiru Haundiak errekor berriaz

Iker Karrera tolosarrak eskuratu zuen garaipena asteburuan jokaturako Hiru Handiak proban. Debagoieneko partaide dezente izan ziren irteeran, Egubakoitzean *Goiena paperean* jarritako 61 lagunak baino gehiago, hainbat mendizalek *ihes* egin zigutelako.

Esan bezala, garaipena Karrera tolosarrendako izan zen, 10 ordu eta 23 minutuko denborarekin. Ondoren, Javier Dominguez gasteiztarra (11:27) eta Zigor Iturrieta (12:02) iritsi ziren Araiako helmugara. Karrera zen faborito nagusietako bat, izan ere iaz bigarren geratu zen Mont Blanceko Ultra Rail proban eta berriki Kanarietan jokaturako Transvulcania proba irabazi du. Goizeko 10:30ak jo baino lehen iritsi zen zapatuan helmugara. Egurditik aurrera iritsi zirenek bereziki sufritu zuten zapatuan, bero handia izan baitzen protagonista. Eta, iluntzean, ostera, eurria egin zuen Aizkorri inguruan. Emakumeei dagokienez, Oihana Azkorbebeitia izan zen azkarrena, 13 ordu eta 37 minutuko denborarekin. 2010ean egindako marka ordu betean jaitsi zuen irabazleak.

Bestalde, uztailearen 13an, 14an eta 15ean Ehun Milak ultrafondoko proba jokatu da. 168 kilometro izango dituzte partaideek aurrean, ibilbide motza (88 kilometro) egiteko aukera ere egon arren.



Markel Elortza. | JOXE ELORTZA



Endika Donai. | JOXE ELORTZA



Ugarte eta Urrizalki Landara iristen. | JOXE ELORTZA

OHOREZKO ERREGIONALA

Alberto Albistegi Realeko jokalaria ohia izango da UDAko entrenatzaile berria

Hasiera baten denboraldi baterako sinatuko du; ilusioz dator Aretxabaletara

E.M. | ARRASATE

Alberto Albistegi Realeko eta Deporrekoko jokalaria ohiak zuzenduko du UDA taldea hurrengo denboraldian. Albistegik (Eibar, 1964) ibilbide luzea dauka futbolekin; besteak beste, Eibar, Sestao Sport, Mallorca, Coruñaiko Deportivo, Realean eta Alavesen jokatu zuen. Hain zuzen, gasteiztarrekin erretiratu zen, 1999ko ekainean. Mallorca eta Deportivoekin lehen mailara igotzea lortu zuen eta galiziarrekin, Arsenio Iglesiasen aginduetara, liga eskuratzeko zorian egon zen. Djukic, Mauro Silva, Fran edota Beбето izan zituen taldekide *Superdepor* hartan. Realean, berriz, sei denboraldi egin zituen eta 113 partidu jokatu zituen txuri-urdinekin. Defentsa postuan nagusiki eta zelai erdian aritzen zen.

Ilusioz Aretxabaletara

Hasiera baten denboraldi baterako sinatuko du Albistegik Aretxabaletarekin. Gorka Valle izango du laguntzaile. Abuztuaren 16an hasiko dute aurre denboraldia UDAko taldeak. Albistegik ilusioz jaso du aretxabaletarren proposamena; gustuko du UDAren proiektua.



Albistegik Alaves taldean ere jokatu zuen. Irudian, Karmonarekin.



Argazkian, Arizmendiko taldea, zapatuko finalaren aurretik. | ARIZMENDI

ARETO FUTBOLA

Arizmendiko infantilek Euskadiko finala galdu zuten Berrio-Otxoaren aurka, 1-3, zapatuan Zarautzen

E.M. | ARRASATE

Infantil mailako Arizmendiko areto futboleko taldeak ezin izan zuen Euskadiko Txapelketa irabazi. Zapatu goizean Zarautzen jokaturako finalean, 3-1 galdu zuen Arizmendik Bilboko Berrio-Otxoa taldearen aurka. Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatatik 60 lagun inguru joan ziren Zarautzera, gaztetxoak animatzera, baina ezin izan zuten garaipena eskuratu. Bizkaitarrek egin zuten lehenbiziko gola eta Edu Bujandak egin zuen banakoa atsedendialdiaren

aurretik. Bigarren zatian egin zituzten Berrio-Otxoakoen garaipena eman zieten beste bi golak.

Denboraldi bikaina

Edozelan ere, denboraldi bikaina egin dute Antxon Isas-Iasasismendi eta Mikel Alcaideren taldeak. Ligan bigarren geratu ondoren, finalean Erain taldeari 7-5 irabazi zioten; jarraian Arabako txapeladunari, Aguraini, 2-1 irabazi zioten eta zapatuan, aldiz, galdu egin zuten bizkaitarren aurka.

DIESELARI XAKEA



Ecoboost motor iraultzailea jaio da.

3 zilindro, 1.000 zentimetro kubiko, 125 ZP. Eta hori guztiori, diesel baten kontsumoarekin. Ez baduzu sinesten, etorri eta proba ezazu.

Ford **Focus EcoBoost** bat duzu **13.950 €**ren truke edo, nahiago baduzu, hilean **126 €**ren truke.

24 kuota. Sarrera: 4.180 €. Etorrizuneko balioa: 8.484 € (UTB: %11,83)



Focus Gama, kontsumo mistoa (l/100 km): 4,2 – 6,4. CO2 igorpena (g/km): 109 – 149
Ford Focus Trend 1,0 EcoBoost Auto-start-stop 100 ZP (74 kW) 5 ate eta Barneko eta Style packa duen autoarentzat baliagarria. Ikusgai dagoen modelook ez du zertan eskaintzen denarekin bat etorri. Ford etxeak prezioak eta kanpainak aldatzeko eskubidea dauka. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria 2012/05/31ra arte. Eskaintza ez da bateragarria beste deskontu batzuekin.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



Go Further

ford.es



Antzuolako jokalaria ihesean baloia oinetan duela, Ermuko bi mutil atzetik dituela. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

Alebin mailako mutikoak futbolean fin, Patxi Godoyren omenezko txapelketan

- ▶ Antzuola, Aloña Mendi, Bergara eta Ermuko mutikoak lehiatu ziren
- ▶ Atzo goizean jokatu zuten torneoa Antzuolako Eztala futbol zelaietan

IRATI GOITIA | ANTZUOLA

Patxi Godoyren omenezko lagunarteko txapelketa jokatu zuten atzo Antzuolan, Eztalan.

Iaz hil zen Antzuolako Futbol Taldeko zale amorratua eta elkarrekin horrela omendu nahi izan du. Hala adierazi digu Tomas Agirre presidentek: "Urte askoan

ibili zen gurekin lanean eta haxe iruditu zaigu bera omenezko modu egokiena, merezi zuen". Amaieran, senitartekoei plaka bat eman zieten elkartekoek.

Harrobia lantzen

Txapelketan alebin mailako mutikoek hartu zuten parte eta Ber-

gara, Aloña Mendi, Ermua eta Antzuolako taldeak aritu ziren nor baino nor gehiago.

Oñatiarrak eta Ermukoak iritsi ziren finalera eta txantxi-kuarrak nagusitu ziren 10-8 irabazita. Hirugarren postuan gelditu zen Bergara eta laugarrenean Antzuola. Garrantzitsuena, baina,

ez zen irabaztea, parte-hartzea baizik. "Hemen ez dago irabazle edo galtzailerik, mutikoek ondo pasatzea da helburua. Baita harrobia lantzea eta beste talde batzuekin harremanak sortzea ere" azaldu zigun Agirrek. Horrenbestez, jokalariek guztiak jaso zuten domina bana oroigarri bezala.



Ermuko jokalaria Antzuolakoari gaina hartuta. | J. CALLEJA



Baloia kontrolatu guran. | J. CALLEJA



Nor baino nor gehiago. | J.C.



Aloña Mendiko kapitaina jokoa zuzentzen. | J. CALLEJA



Antzuolako ordezkoen aulkitik entrenatzailea animoak ematen. | J.C.

JON ETA ENAITZ
ALOÑA MENDI

"Bergararen aurka irabazi egin dugu eta orain finala jokatzen ari gara Ermuaren aurka. Guk ahaleginak egin ditugu finalera iristeko eta hori ez da gutxi; irabaztea beste zerbait izango da, saiatu, saiatuko gara".

JON, XABAT ETA ARITZ
ANTZUOLA

"Ermuaren kontra galdu egin dugu, izan ere, oso *potenteak* dira. Baina Bergararen aurka irabazi egingo dugu. Hala ere, garrantzitsuena ondo pasatzea da eta gu gustura gabiltza".

LUKEN ETA GAIZKA
ERMUA

"Finalera iritsi gara eta oso pozik gaude. Espero dugu oñatiarrei irabazi eta lehenak geratzea. Nahiz eta badakigun txapelketa honetan helburua ez dela irabaztea, ongi pasatzea baizik".

KOLDO ETA OIER
BERGARA

"Aloña Mendiko jokalariek oso onak dira eta galdu egin dugu euren aurka. Partidu gogorra izan da, gol asko sartu dizkigute. Orain, ordea, 3-0 goaz irabazten Antzuolari".

MENDIKO DUATLOIA

Argider Isasti | Atleta

"Ardien modukoak gara; puntako atletak ikusten ditugu eta euren atzetik joan nahi izaten dugu"

- ▶ 'Los 10.000 del Soplao' proba irabazi du Oñatikoak, mendi bizikletan eta korrika
- ▶ Domeka honetan, Salouko ironman triatloian hartuko du parte anaiarekin batera

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Kantabrian egiten duten *Los 10.000 del Soplao* proban hartu zuen parte Argider Isasti (1977), atleta oñatiarrak. 8.30.21eko denbora eginda proba irabazi zuen, 45 kilometroko maratoia eta bizikletan 70 kilometro eginda. Beste urte batzuetan ez bezala, aurtentzen oso eguraldi txarra egin du eta horrek eragin handia izan du parte-hartzaileengan.

Los 10.000 del Soplao proba irabazi duzu; iparreko infernua deitzen diote, eta aurtengoa benetan izan da infernua, ezta?

Bai. Proba honetako beste edizio batzuk beroak izan dira eta aurtengoa gogorregia izan dela esango nuke.

Nolako da lasterketa hau?

Proba honetan, hasiera batean, mendiko bizikleta egiten zen, eta 175 kilometroko proba izaten zen. Geroz eta jende gehiagok egiten zuen proba hau, eta duela bi urte, maratoia eta mendiko bizikleta uztartzea erabaki zuten. Aurtengoak ere bi proba horiek izan ditu, eta 7.800 partaide.

Nahi beste hotz, euri... zer izan zen gogorrena?

Hotza dela eta, gogorra izan zen. Goian hiru gradu zeuden, baina sentazio termikoa txikiagoa zen. Euriarekin, egia esan, gusturago joan nintzen. Dena den, jendea hipotermiarekin zegoen.

Beste urte batzuetan sekulako beroa egin du; zer nahiago duzu?

Beroarekin egin izan dudanean ondo sentitu naiz. Hala ere, euria egin zuenez, lokatza sortu zen, eta horrek proba gogorragoa izatea egiten du. Dena den, hori niretzat ona da, proba gogorrak ondo etortzen zaizkit eta.

Nolako izan da aurtengo lasterketa?

Aurtentzen antolakuntzako kideak kolapsatuta ibili dira. Orain arteko edizioetan ez du hain eguraldi txarrik egin, eta, egia esan, aurtengoa neurrigabekeria izan da. Guztia inprobisatu egin zuten, ez zutelako aurtengo espero eta ez zeudelako prest. Ez zeukaten ordezko planik, eta ibilbidea moztea izan zen emaitza. Gauzak horrela, ia gaueko hamarretan hasi ziren sariak ematen, jendearen segurtasunak lehentasuna zeukalako.

Urtero joaten zara proba horretara; zer du beste proba batzuek ez dutena?

Azkenean, ardiek jokatzeko duten moduan jokatzeko dugu; alegia, gu ere onenak doazen lekura joaten gara. Izan ere, proba horretara jende ona joaten da, punta



Argider eta alaba, sariarekin. | ARGIDER ISASTI

-puntakoa, eta nik neuk helburu gisa bertan parte hartzea planteatu dut.

Ibilbideak aldatu egin behar izan zituzten, ezta?

Korrika egiteko ibilbidea ez zuten aldatu. Berez bizikletan egiteko ibilbideak 165 kilometro ditu, eta bi probak egiten ditugunok korrikako proba egin ostean bizikleta hartu eta bizikletako

proba egiten ari direnekin elkartzen gara, proba elkarrekin amaitzeko. Bi taldeak elkartzeko zirkulu bat dago eta hori aurtentzen kendu egin dute. Beraz, proba osoa bizikletan egin behar zutenek 165 kilometro egin beharrean 125 kilometro egin zituzten eta guk, bi probak egin dugunok, bizikletako proban 70 kilometro egin genituen.

Ziklo-krosean jarduten duen Joseba Leonek idatzi du aspaldi ez bezala sufritu zuela.

Proba amaitu eta gero harekin hitz egiten egon nintzen, eta hala da. Dena den, hark beste urte batzuetan irabazi izan du proba hau.

Irakurri dugunagatik, piura ederrekin ibili ziren atleta batzuk. Zuk ikusi zenuen larri zebilen inor?

Bai, ikusi nuen larri zebilen jendea, baina orduan ez zara jasaten ari diren sufrimenduaz ohartzen; izan ere, horretaz amaitzean konturatzen zara. Aitor Kintanak, esate baterako, gorpila zulat

zuen eta ia hipotermiak eman zion. Momentu hartan ez zegoen anbulantziarik hura eramateko, eta auto batean jaitsi zuten behera. Edozelan ere, maratoian jende asko ikusten da larri. Ni ere maratoian erori egin nintzen eta bularrean min hartu nuen. Momentuan ez nuen ezer igarri, baina orain saihesta minduta daukat.

"Sari banaketa gaurko hamarretan hasi zen, jendea artatzen zeudelako"

"Triatloietan hiru kirolak bateratzea oso mesedegarria dela uste dut"

Zeintzuk dira hemendik aurrera dituzun helburuak?

Asteburu honetan bertan, anaiarekin Saloura noa ironman proba egitera. Domekan izango da, eta espero dut saihesta ondo izatea eta triatloi hori egin ahal izatea. Ondoren, beste 10.000ko bat egitera joango naiz.

Non moldatzen zara hobeto, distantzia motzetan ala luzeetan?

Luzeetan hobeto moldatzen naiz, baina, hala ere, distantzia luzeak bakarrik dituzten probak egiten ditut.

Bi kirol bateratzea mesedegarria da?

Bai. Gainera, geroz eta garbiago daukat bi kirolak bateratzea mesedegarria dela. Maratoia soilik egingo banu, ezin izango nioke eutsi. Izan ere, kirol bat egitean gorputzeko zati bat soilik lantzen da, eta zati hori txikitzen da. Nik triatloia egiten dut, eta, azken baten, bada, hiru kirol desberdin egiten ditut.

HEZIKETA

Entzute aktibo eta enpatikoarekin askoz hobeto ulertuko ditugu seme-alabak

Erronka nagusia seme-alabak entzutea da, ez arazoei irtenbide bat ematea

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Bi hitzaldi egin ditu azken bi asteotan Baikara elkarteko Esther Martinez pedagogoak Elgetako Herri Eskolan. Hainbat kontu izan ditu hizpide; tartean, entzute aktibo eta enpatikoa. "Komunikazioa jarraitzea errazten du, eta seme-alabak hobeto ulertzen laguntzen du, betiere, euren arazoak gure egin gabe", adierazi du Martinezek.

Arreta guztia

Beste pertsonaren lekuan edo ikuspuntuan jartzea, mezu osoa jasotzea eta entzuten ari garela aditzera ematea; hori da entzute aktibo eta enpatikoa.

Haurrek, sarri, luze hitz egiten dute gauza bakar bat adierazteko. Istorioaren muina lokalizatu behar dugu garrantzizkoa ez denarekin arreta galdu barik. Gainera, alde batera utzi behar dugu gauzak konpontzeko edo



Baikarako Esther Martinez, Elgetako Herri Eskolan saioa egiten. | LZ.

momentuan irtenbideak emateko premia hori. "Haurrek arazo bat azaltzen dutenean, ohikoa da gurasoek eten eta berehala irtenbidea proposatzea", esan du Martinezek. "Baliteke haurra esperientzia bat komunikatzen egotea, ez irtenbide bat eskatzen".

Komunikazio ez berbala

Sentimenduei ere kasu egin behar zaie. Batzuetan, haurrak hitzekin adierazten duena ez dator bat jarrera fisikoak edo ahotsaren tonuak adierazten duenarekin. Oso adi egon behar dugu horrelako seinaleen aurrean.

Erremedio naturalak pixoihalak eragindako dermatitisari aurre egiteko

Pixoihaiek kaltetu egiten dituzte azal batzuk; prebentzio neurri naturalak har daitezke

LZ. | ARRASATE

Haurrari pixoihalak hartzen duen azal eremua gorritzen edo gaiztotzen bazaio, ohikoa da dermatitisa izatea, eta neurriak hartu behar dira; botikak badaude, baina erremedio naturalak ere, eta esan gabe doa gaitza agertu aurretik prebentzio neurriak hartzea oso egokia dela.

Alergia baztertu

Lehenik, alergiarik ote dagoen baztertu behar dugu. Haurrak alergia izan diezaioke pixoihal konbentzionalek daramaten materialen bati. Hori bada kasua, pixoihalaren marka alda daiteke edo telazko pixoihalen aldeko apustua egin.

Erremedio natural batzuk

Azal leunak zaintzeko oso egokiak dira olo (avena) bainuak. Sumindura eta azkura arintzen dute, eta zona hori onbideratuko dute. Zuku-makinan sartu 100 gramo olo. Txikituta dagoeanean nahastu bainuko urarekin. Zauriak prebenitzeko, berriz, erabili bainu aromatikoak. Bota tanta bat izpiliku edo kamamila esentzia koilara bat almendra oliotan, eta hori ere bainuko uretan nahasi. Basailen edo kalendula zein kamamila kremak ere oso onak dira azala birsortzeko. Bach loreetako *rescue remedy* tratamendua ere gomendatzen dute adituek. Beste aukera da talko-hautsa basailen-hautsarekin ordezkatea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

Gogoratu bidegorria denona dela



Dabid Berezibar
TAFYDeko irakaslea

Egunotan egunkarietan bailarako bidegorrien inguruko albisteak ageri izan dira; zenbatak erabiltzen duten, zein zati berri egingo den, eta abar... Gai horri lotuta goraiatzeko da udalek bidegorriekiko hartu duten jarrera. Urte batzuetatik hona udalerrak elkartzeko egiten ari diren esfortzua ikaragarria da, baina, beti bezala, diruak helburuak mugatzen ditu. Hori dela eta, ezinezkoa da bidegorrietan segurtasun osoz ibiltzea; nahi baino gehiagotan egiten dugu topo bidegurutze arriskutsuekin, elkartu gabeko zatiekin, argiztatu gabeko tunelekin... Hala ere, arriskuak arrisku, ba al dakigu nola ibili bidegorrietan? Gauza bera al da bidegorria eta bizikleta-bidea?

Kontzeptu batzuk argitzen

Bizikleta-bidea motorrik gabeko

bidea da; gehienbat, bizikleta bidezko mugikortasunerako. Bizikleta-bidezidorra, berriz, oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko bidea da; gehienbat, trenbide zaharretan egokitutakoak izaten dira.

Bizikleta-espaloia beste gauza bat da; oinezkoentzako espaloien espazioan ezarritako bizikleta-bidea. Ikus dezakezue, gure bailarako bidegorria azken bi kontzeptu horiei egokitzen da, nahiz eta hainbat lekutan zorua gorritz margotua egon, ez da bizikleta-bidea.

Bidegorria oinezkoek eta txirrindulariek –baita patinatzaileek ere– elkarbanatzen duten espazio edo bidea da. Zirkulazio araudiaren aurrean bidegorriak arautu gabe daude.

Toki batzuetan udalak erregulatzen ditu, baina ez da bailarako kasua. Bizikleta-bidea balitz txirrindulariei egokitutako arauak izango lituzke, eta oinezkoek ezingo lukete erabili.

Beraz, gure bailarako bidegorria denon bidea da, baina, bide

horretan tamainak garrantzia duenez, lehentasuna oinezkoek izango dute. Horregatik, txirrindulariek kontu handiz ibili behar dute oinezkoekin.

Bizikleta gainean gidari

Edozein pertsona, bizikletan doanean, gidaria da. Horrek esan nahi du bidegorritik kanpo ateratzen denean, errepidean dabilenean, automobilerako edo motorrerako gidari gisa hartuko dela. Bidegurutze asko daude, eta horietan guztietan gidari bihurtzen gara, bizikleta eskuetan hartzen ez badugu, behintzat.

Bidegorrietan kaskoa ez da derrigorrezkoa, baina errepidea zapaltzean zirkulazio-arauak errespetatu eta bete egin behar dugu erabiltzaileak. Hori egin ezean isuna jaso dezake: 200 euro kaskorik gabe baldin badao, mugikorretik hitz egiten ari bada zein aurikularrak erabiliz gero. Txirrindulariak, gainera, alkoholemia kontrola pasarazteko arriskua ere izan dezake.



Ziklista baten eta oinezko baten arteko istripua bidegorrian. | ARIZMENDI IKASTOLA

Gomendio batzuk bidegorrietarako

Kaskoa derrigorrezkoa ez bada ere, erabiltzea gomendatuko nuke, ez goaz-eta gu bakarrik, beste batzuen eragina ere izan dezakegu. Oinezkoiei abisatzeko txirrina edo txistua erabili, eta euren ondotik pasatzean, abiadura moteldu, erreakzionatzeko denbora izan dezaten. Bidegurutzeetan gelditu, ondo begiratu eta orduan gurutzatu. Bidegorrian eskumatik gidatu, aurretik datorrenarekin zalantzarik ez izateko. Oinezkoek ez hartu bidegorri osoa zabaleran, tartetxo bat utzi txirrindularientzat. Elkar errespetatzeak bidegorriaren erabilera errazten du.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

KULTURA



Amaieran, saritutako gaztetxo guztien taldeko argazkia egin zuten Udal Pilotalekuan. | JULIO CALLEJA

Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa jendetsua

Udal Pilotalekuan herritar ugari batu ziren zapatuan; antolatzaileak pozik lanen kantitate eta kalitatearekin

EDU MENDIBIL | BERGARA

Pilota jaialdi onenekin bezala bete zen Bergarako Udal Pilotalekua zapatuan. Eguerdian, Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zuten frontoian. Jesus Elortza alkatearekin batera, Maren Belastegi Euskara batzorde buruak, Miriam Intxausti Kutxako ordezkariak eta Estepan Plazaola kultura zerbitzuko arduradunak hartu zuten parte ekitaldian. Beroari aurre

eginez, herritar ugari (gurasoak nagusi) batu ziren Udal Pilotalekuan.

Kategoria bakoitzean saritutakoak izan ziren protagonista nagusiak Udal Pilotalekuan. Era berean, herriko ikastetxeek prestatutako zenbait emankizunekin gozatu ahal izan zuten ikusleek. Ordubete pasatxo iraun zuen ekitaldiak eta une dibertigarriak ere izan ziren gaztetxoekin kontakizunekin. Bideoz egindako gra-

bazioak erabili zituzten hainbat kasutan, soinuak, zenbait unetan, behar bezala iristen ez zen arren.

Parte-hartze handia

Aurtengoa lehiaketaren 27. ekitaldia izan da eta sari mordo bat banatu zituzten zapatuko ekitaldian. Antolatzaileak pozik azaldu dira jasotako lanen kopuruarekin zein kalitatearekin. Ipuinak izan dira genero arrakastatsuenak.

ESTEPAN PLAZAOLA | EUSKARA ZERBITZUKO ARDURADUNA

"Aspaldiko lan onetsuenak jaso ditugu aurtengo lehiaketan, maila ezberdinetan"

Udalak deitutako Koldo Eleizalde lehiaketan parte-hartze handia lortu dute aurtun ere: jasotako ipuin idatziak 328 izan dira; bertsoan 19 lan; komikiak 77; ipuin kontaketa eta antzerkian 46; txiste eta umorezko pasadizoei dagokienez 42; eta azkenik, eskola irratsaioen mailan 7 lan jaso zituzten. Estepan Plazaola Udaleko Euskara zerbitzuko arduradunarekin egin genuen berba zapatuan.

Zer nolako lanak jaso dituzue aurtengo ekitaldian?

Aspaldiko urteetako onetsuenetakoak jaso ditugula esango nuke. Gainera, nagusien mailan, ipuin idatzietan, kalitatezko lan batzuk saririk gabe geratu dira baina epaimahaiak nolabaiteko errekonozimendua egin nahi

izan die egileei, kalitatezko lanak aurkeztu dituztela esanez eta idazten jarrai dezatela animatuz. Bestalde, aurreko urteetan oso bakanak izan dira 20 bat urtetik gorako partaideak eta aurtengoan taldetxo polita egon da. Kalitateaz eta parte hartzeaz oso pozik gaude.

Izan da genero ezberdinetan errepikatu den gairik? Nolabaiteko gai izarririk egon da?

Ez. Zerbait nabarmenezkotan zera esango nuke: komikietan, beste urte batzuetan ez bezala, gai sozialen presentzia handiagoa izan da beharbada. Egunerokotasunari lotutako gaiak, krisiak tartean, presentzia nabarmenagoa izan dute. Edozelan ere, orokorrean adin bakoitzari lotutako gaiak



Estepan Plazaola.

izan dira egileek landu dituztenak. Lanak liburuxka baten batuko dituzue?

Ikusi behar. Oraingoaz, ikus-entzunezko lanak sarean daude eta liburuxka ateratzen ez bada, idatzizko lanak ere eskuragarri jarriko ditugu.

SARIAK

IPIUIN IDATZIA

1. TALDEA

Bergarako iturria. Maddi Lazkano Ezpeleta. Aranzadi

Erle magikoa. Aroa Lazcoz Conde. Aranzadi

Eskoba magikoa. Olatz Gallastegi Visitación. Aranzadi

2. TALDEA

Entsalada lehiaketa. Malen Kalboetxeaga Garitano. M. Lagundia

Armiarma berritsua. Maitane Etxabarri Alberdi. M. Lagundia

Erratz txoroaren jabea. Leire Arietaleanizbeaskoa. San Martin

3. TALDEA

Pepe pirata mutua. Aitor Esnaola Soraluze. San Martin.

Osagaien haserre. Nekane Ramudo. San Martin.

Grafikoa. Lide Albeniz Arana. San Martin.

4. TALDEA

1. zebak oparitutako egunerokoa. Olatz Abasolo

2. Jone, ez zaude bakarrik! Maitane Muruamendiaraz Arana eta **Amaren gutuna**, Gaizka Morales.

5. TALDEA

1. Maitasun likidoa. Maddi Iñarra Ibarburen

2. Erantzunen galderak. Ana Moñux Txintxurreta

3. Tik-tak. Uxue Agirre Madariaga

BERTSOAK

1. TALDEA

Goazen hondartzara. Josu Elizburu, Danel Soto, Iñaki Mujika, Irati Olabarria, Elene Arruti eta Aaron Gabilondo. Aranzadi

Nere bizitza Euskal Herrian. Ibon Muniategiandikoetxea. Aranzadi

2. TALDEA

1. Gure gustokoa. Iker eta Xabier Aldai. M. Lagundia

3. TALDEA

1. Indarrez beteriko txinpartak. Nerea Madariaga Mujika.

2. Borboiak (Maddi Txintxurreta Agirregabiria, Aranzadi) eta **Hegoalderantz** (Amaia Arana Madariaga, Leire Martin Gonzalez eta Maialen Belastegi Toledo, Ipintza)

KOMIKI-TIRA

1. TALDEA

Lata baten bizitza. Maddi Gutierrez Zenitagoia. Aranzadi

Eguzkia eta ilargia. Maddi Bengoa Arregi. San Martin

2. TALDEA

1. Kobazulokoak. Naroa Inza Retes. Aranzadi

2. Irakasle metaforikoa. Gorka Martin Gonzalez. Ipintza

ESKOLA IRRATIA

1. TALDEA

Karnabalak irratsaioa. Maitane Suinaga Ena, Gorka Ibarra Guridi, Jon Errasti de la Maza, June Salaberria Fernandez, Nora Iturralde Castro. Mariaren Lagundia

Lib dup irratsaioa. Maialen Román Payas, Aitor Andoaga Ayestarán, Erik Romero González, Leire González García, Natalia Igartua Domenech. Mariaren Lagundia

2. TALDEA

Kaixo Euskadi. Nerea Bernal, Maria Berroya, Aritz Basterra, Xabier Aldai. Mariaren Lagundia

Egun on Euskal Herria. Amaia Etxaniz, Y esika Silva, Ibai Gonzalez, Jon de la Rosa, Jackson Yañez. Mariaren Lagundia

IPIUIN KONTAKETA EDO ANTZERKIA

1. TALDEA

Zazpi antxumeak. San Martin ikastetxeko 5 urteko haurrak. San Martin

Txanogorritxo txontxongiloekin. Beñat Askargorta, Maider Galfarsoro, Iraia Ortiz de Jocano, Maddi Gaztelu, Anartz Calleja, Iker Olabarria. Aranzadi

2 TALDEA ANTZERKIA

Ahatetxo itsusia. June Salaberria Fernandez, Maddi Oregui Alberdi, Leire González García, Jon Errasti de la Maza, Natalia Igartua Domenech, Joane Lizarralde Larrañaga. Mariaren Lagundia

Amama honekin kontuz. Leire Rajado, Aitziber Iturriaga, Amaia Macias, Andoni Calbano, Mariñe Gonzalez, Naroa Arenaza, Garazi Gallastegi, June Berraondo, Josu Morras, Mikel Zubizarreta eta Naroa Mendizabal. Aranzadi

2. TALDEA IPIUIN KONTAKETA

Kukuarena. Alex Elgezua Elexpuru. Aranzadi.

Arratitxo kaskarina. Malen Mondragon Aginagalde. Aranzadi

3. TALDEA

1. Oihane Frank. Martin Telleria.

2. Edurnezuri. Nora Blanco eta Ane Txintxurreta. M. Lagun.

4. TALDEA

1. Arroxali. Estitxu Ramos Bengoa.

2. Lorontzi hutsa. Amaia Etxebarria Agirre.

TXISTEA ETA UMOREZKO PASADIZOAK

1. TALDEA

Mesede. Julen Zabala. Mariaren Lagundia

Usain txarrak, lanak. Aritz Unamuno Garai, Josu Morras Gallastegi, Aitor Alberdi Etxebarria. Aranzadi

2. TALDEA

1. Zilarrezko ezteiak. Irati Lazpiur. Aranzadia.

2. Txixaguria. Jon Etxebarria. Aranzadi

Paradisura bidean, Dokekoek lehen geldialdia egin zuten Amaia antzokian

Ikusleen txalo zaparradarekin amaitu zen 'Paradisuko atean' antzezlanaren estreinaldia

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Mirenkarmele Zuazubiskar hil berri da, baina gurekin jarraitzen du oraindik: bere errautsak beilatokian daude, eta handik pasako dira bere senarra, lagunak, bizilagunak, gaztetako amodioak eta senide gorrotatuak. Mirenkarmelek denak ikusiko ditu, denei egingo die berba. Baina mamua da, eta besteek ez dute ez ikusiko, ezta entzungo ere.

Hori da egubakoitzean Doke taldeak Arrasaten estreinatu zuen *Paradisuko atean* antzezlanaren muina. Muina bakarrik, Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako testuak beste hainbat gai ere lantzen ditu-eta, ezkutukoagoa edo nabarmenagoa, baina beti amore puntu bat atzean dela.

Aktoreen lana aparta da, pertsonaia bakoitzari bere ñabardura emanaz eta zentzu horretan ezin ahaztu Maite Ezkurra: bera da Mirenkarmele, eta edeki eroaten du bere gain obraren pisua. Soinuak eta argiztapenak ere zati garrantzitsua dute; horren adibide dira hasierako eta bukaerako zatiak, egonezina sortzera heltzen direnak.

Zuzendaria, gustura

Ez ziren gutxi izan egubakoitzeko estreinaldia ikustera gerturatu zirenak eta txalo zaparradarekin amaitu zen emanaldia. Estreinaldiaren ostean, Itziar Rekalde zuzendaria lasai eta gustura zegoen bai taldeak egindako lanarekin, baita publikoaren erantzunarekin ere.



Amaia antzokiko agertokian estreinatu zuten Dokekoek *Paradisuko atean* obra. | JULIO CALLEJA



ANDER ARANDIA
ALEGIA

"Oso polita izan da. Antzezlanaren herriko jendeak egindakoa izatea asko gustatu zait, eta argiztapen eta musika aldetik esaterako zaindua iruditu zait".




MARGA ZUBIA
ARRASATE

"Oso gustura egon naiz antzezlanaren ikusten. Orokorrean, dena gustatu zait, eta aktore guztiak ezagutzen nituenenez... Ikusten da lana egin dutela".



MARTA MADINABEITIA
GASTEIZ

"Zuzendariaren laguna naiz eta Gasteiztik etorri naiz obra ikustera. Ez dut dena ulertu, baina bisualki asko gustatu zait eta oso ondo egin dutela uste dut".



JOSU JAUREGI
ARRASATE

"Hunkigarria iruditu zait, Askok gustatu zait aktoreak eurak nola mugitzen ziren; oso lan ona gein dute. Jendeari gomendatuko nioke obra ikustera joatea".



JULIO CALLEJA

Onekin, giro ederra Eskoriatzan

Jende dezente erakarri zuen On taldeak egubakoitz gauean Eskoriatzako Inkernu tabernan emandako kontzertuak. Ibai Suarez baxuarekin batera, Xarman aritutako Itsaso Gutierrezek eta Denis Alberdik osatzen dute On eta talde moduan eskaintzen zuten bigarren kontzertua izan zen Eskoriatzako. Giro ederra sortu zen, bertan eta uztailan grabatuko duten diskoko kantuez gain, Xarmaren lau doinu ere jo zituzten.



JULIO CALLEJA

Araoztarren liburua, aurkeztuta

Trinitate jaietan murgilduta ibili dira asteburuan Oñatiko Araoz auzoan, eta zapatu gauean auzo afarian jendetsua egin zuten frontoian. Bertan aurkeztu zuen Paulo Agirrebaltzagatik argitaratu berri duten *Araozko kantuak eta kontuak* liburua. Bitoriano Gandiaga zenak Araozko parroko lanak egin zituen auzotarrengandik jasotako istorioak eta abestiak biltzen ditu liburu horretan Agirrebaltzagatik eta kantuen doinuaren transkripzioaz Pello Zabala arduratu da.

KRONIKA

Musika festa Elgetan

E.M/I.A. | ARRASATE

Egubakoitzean Elgetako Espaloira hurbildutakoek izugarri gozatu zuten kontzertuarekin. Lehenbizi Morau bakarlari hernaniarra igo zen agertokira. Hamar bat urte igaro dira dagoeneko azken aldiz Elgetan jo zuenetik eta emanaldi lasaia,

dotorea eskaini zuen Morauk. *Ni naiz guai* moduko kantuak entzuteko aukera gutxi izaten dira eta Balerdi Balerdiren kamisetarekin atera zen Morauk hiru bis egin behar izan zituen zaleen eskaerari erantzuteko. Jarraian, Balerdi Balerdi iruindarrekin festa etorri zen.

Morauk berak kantu bat egin zuen haiekin (*Nork daki* ezaguna. Amaiera aldera, Bide Ertzeaneko Imanol Ubeda eta Balerdi Balerdiko teklista izandako Blanca Izcueren laguntzarekin, *Letrak zeruan* eskaini zuten nafarrek, tarteka suertatzen den une eder horietako bat. Tartean aspaldiko kantu ezagunak eta azken garaiak (dozena erdi bat berriak) eskaini zituzten, jarraitzaile fidelen gozamenerako. Iragana indarrez eta bizi-bizi etorri zen egubakoitzean Espaloira.



Balerdi Balerdi taldea egubakoitzean, Elgetan. | JULIO CALLEJA



JULIO CALLEJA

European kantari gaztetxean

Egubakoitzak kartzelan zikloko azken kontzertua izan zen ostiralean Bergarako gaztetxean. Markos Untzetak jardun zuen lehenbizi eta jarraian Igor Arzuagak eta Luis Vilek osatutako bikoteak *Mara-mara* diskoa aurkeztu zuten kartzela zaharreko patioan. Euriak ez zuen zapatuko jaia zapuztu eta ikusleek emanaldiarekin disfrutatu zuten.

'Elkartasun doinuak' Arrasaten

Elkartasun doinuak, presoan eskubideen aldeko ekimenaren 7. ekitaldia ospatu zuten zapatuan Arrasaten. Bero galanta tabernatan, eta freskoago kalean izandako kontzertuetan. Arrasateko hainbat tabernatan 15 musika taldek jardun zuten eta festari amaiera borobila emateko kontzertua izan zen gaeagan gaztetxean.



JULIO CALLEJA

Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik



Nahastutako bilketa = Kutsadura
= Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea
= Osasuna

ondo
egitera
goazz



DEBAGOIENA EZAGUTZEN



JAKION
Jakionek emandako
Produktu sorta *
* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

Nork antolatu du asteburu honetan XIV. Garagardo Azoka Arrasaten?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali BONOFOTOA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
E-postaz: kluba@goiena.com

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, halek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

EKAINEKO SARRERAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, halek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

KONTZERTUA
GOIKOBALU TXIKI ETA GAZTE ikusteko bi sarrera.
Arrasateko Amaia antzokian.
Ekainaren 8an, 22:00etan.



Bidali KLUBA GOIKOBALU
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



KONTZERTUA
'SORTUKO DIRA BESTEAK'
Xabier Lete gogoan
kantaldirako bi sarrera bikoitz.
Beasaingo Antzizar kiroldegian.
Ekainaren 9an, 22.30ean.



Bidali KLUBA XABIER LETE
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



KONTZERTUA
EUREKA MUSEOAn
Musikaren eguna eta udako soltzizioaren ospakizunerako bi gonbidapen bikoitz



Bidali KLUBA EUREKA3
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



Atera etekina

goienakluba 2012

%10 eko deskontua



• %10eko deskontua.
(ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati, 943 78 01 46.

IKER SUKALDEAK
IKER sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta, 943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia, 943 46 44 00



GURE MUSIKA TALDEAK

"Gustuko dudan guztia barneratu eta nire abestietan erabiltzen dut"

- ▶ Gorka Mendoza bergararrak 'Roof Top' izeneko EPa kaleratu berri du Bilboko Collider Records zigiluarekin
- ▶ 18 urterekin hasi zen DJ lanetan eta 14 urte hauetan, besteak beste, Ingalaterran, Zipren, Argentinan eta Brasilen ibili da

ANDER MONEDERO | BERGARA

Gorka Mendoza (Bergara, 1980) 1998an hasi zen lagun artean musika jartzen, besteak beste, Ima Child Out-en eraginez, eta handik gutxira Bergarako Go Jam-en saioak eskaintzen hasi zen. Gero, 21 urte zituela, Londresera bizi izatera joan, eta musika elektronikoaren eszenan sartu zen. Bere ibilbidearen eta kaleratu berri duen *Roof Top* EPari buruz hitz egin dugu.

18 urterekin hasi, eta 21ekin Londresera salto egitea erabaki zenuen. Zergatik?

20 urterekin, inguruko DJ eta lagun talde batekin batera Go Jam-en programazioa eramaten hasi ginen. Urtebete geroago, aldaketa behar nuen, eta Londresera joan nintzen, Ekoizpen Musika ikasteko asmoarekin.

Londresen zinela, munduko leku askotan saioak egiteko aukera izan zenuen.

Musika elektronikoaren eszenan sartu nintzen, publikoak eta programatzaileek nire lana ezagutzen hasi, eta beste herrialde batzuetan saioak egiteko gonbidapenak jaso nituen.

Gonbidapen horiekin, besteak beste, Polonian, Zipren, Brasilen eta Argentinan egon zara.

Kanpoan saioak egitea esperientzia polita da, asko ikasten da eta norberaren lana zabaltzeko aukera ezin hobea da.

Elektronikaren jaioterria eta jarraitzaile gehien dituen lekua Ingalaterra da.

Elektronika sortu zenetik abangoardia da Ingalaterra. Estilo desberdin askoren nahasketa dago eta genero berriak sortzen dira; adibidez, *Dubstep* generoa. Hemen ez da askorik ezagutzen eta estilo hau Euskal Herrira heldu orduko urte asko pasatuko dira. Tendentzia berriak entzuteko orduan lo gaude!

Collider diskoetxearekin *Roof Top* izeneko lana kaleratu duzu. Nola sortu zen diskoa kaleratzeko aukera?

Lagun baten bitartez sortu zen diskoa kaleratzeko aukera. Nire lana ezagutu eta gustatu egin zitzaion eta Fernando Carvalho ekoizlearekin harremanetan jarri ninduen.

14 urteren ostean, zuzenekoetatik diskoa egitera pasatu zara. Batetik bestera jauzi handia dago?

Orain arte nire lana zuzenean erakutsi dut, eta disko batean abestiak sartzeak errespetu handia ematen dit, baina aukera hau



Gorka Mendoza, Yanéé, saioa hasteko prest. | ANDER MONEDERO

momentu egokian etorri zaidala uste dut.

Diferentzia handia dago zuzenekoak prestatzetik disko bat prestatzera?

Alde handia dago, batez ere, nire kasuan bezala, disko bat lantzerakoan esperientziarik ez dudalako. Lana bukatu arte ez dakizu nola geratuko den; gainera, diskoak autoan eta etxean entzuten dira, ez diskotekan.

Diskoa etxean ekoiztu duzu.

Bai; Zigoitiko baserri baten bizi naiz, bertan estudio bat egin dugu eta hiru hilabete egin ditut abestiak prestatzen. Esan beharra dago diskoaren ahotsak bat-batekoan grabatu genituela, abes-

lariari musikak transmititzen ziona islatu zuen, eta emaitzarekin oso pozik nago.

Diskoan hartutako jakinduria zuzenekoetan islatuko duzu?

Bai, musika entzutea asko gustatzen zait, eta, gauez irteten naizen bakoitzean, entzuten dudan guztian arreta handia jartzen dut. Gustuko dudan guztia barneratu eta nire abestietan erabiltzen dut.

Zuzenekoak abestiak hobetzeko aukerak ematen ditu.

Abestiak bukatzen hilabeteak pasatzen ditut, zuzenekoetan inprobisatzea gustatzen zait, eta gustuko gauzak abestietan integratzen ditut. Genero hau entzu-

ten dutenek badakite abesti batek bestera salto handia dagoe.

***Roof Top* diskoa formatu digitalean kaleratu duzu.**

Aurrekontu murriztua dugu, eta, oraingoz, deskarga digitalaren bitartez eskura daiteke. Etorkitzunean, dirua lortuz gero, formatu fisikoan kaleratuko dut. Nire binilo bat eskuetan izateko irrikan nago.

Nola ikusten duzu hemengo musika elektronikoaren eszena?

Publiko asko dago, baina ez guk nahi beste. DJ piloa dago, eta gauza interesgarriak egiten ari dira. Ala ere, DJen arteko senidetetasuna falta da, pikeak eta

inbidiak alde batera utzi eta elkarrekin lan handiagoa egin behar dela uste dut. Argentinan ikusi nuen elkarrekin lan eginda eszena indartsua lor daitekeela; elkarlanak DJ hobeak sortzen ditu.

Non eta noiz entzun dezakegu Yanéeren saio bat.

Orain Cadizera noa bi diskotekatan lan egitera. Uda osoa bertan pasatuko dut El Palmarko Mambo Beach-en eta Conilgo La Luna diskotekan.

Zure emanaldiak Interneten entzun daitezke?

Bai, www.soundcloud.com/yaneemusic eta www.soundcloud.com/gorkajam helbideetan.



Tim Cook, elkarriketzaileekin, eskuineko muturrean. | ALLTHINGSDIGITAL

Cookek dio iPhone-a Apple-en izarra dela oraindik, eta luzaroan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

AllthingsDigital atari ezagunak D10 hitzaldia sortan izan du gonbidatu bezala Tim Cook, Apple-eko zuzendari nagusia. Konpainiaren estrategia nagusien berri eman du han Cookek.

Sare sozialekin erabateko bategitea da Cookek aipatu zuen irizpide nagusietako bat, Twitterrekin egin duten moduan. Aurreartu zuenez, Mac OS X Mountain Lion sistema eragile berriaren presentzia handia izango du sare

sozialak, gainera. "Gauza sinetsgaitzak" egongo direla ere iragarri zuen Cookek. iPhone-ari buruz luze eta zabal berba egin zuen Cookek eta sistema eragilearen trinkotasuna defendatu zuen, Android sistemen fragmentazio handiaren aurrean, eguneratzeko erraztasunak emanez. "Gailu izarra" izaten jarraituko du. Telebistari dagokionez, esamesen indarra ikusita, ezer gutxi aipatu zuen Cookek. Halere, aurtan ez dute merkaturatuko, antza.

Mobiletik sarera konektatzeko murrizketak ohikoak dira

J.B. | ARRASATE

Telekomunikazioen erakunde erregulatuak batzen dituen BEREC erakunde europarrak salatu du erabiltzaileen %20tik %50era mota bateko ala besteko murrizketak izaten dituztela operatzaileen aldetik artxiboen trukatean edota Skype moduko dei zerbitzuak erabiltzen dituztenean. Murrizketa hauek kasu askotan kontratuetan bertan iragartzen dira baina erakundetik salatzen dute operadoreek Internetarako sarbidea moduan saltzen dutena ez dela sarea bere osotasunean erabiltzeko aukerarekin bat etortzen. Telefonía finkoari dagokionez, artxiboak trukatzeko orduan abiadura murrizketak ezartzen dituzte operadoreen %20ak baina zenbait herrialderen kasuan, Espainian esate baterako, erabiltzaileen %95ari eragiten dio horrek.

Murrizketak murrizketa, hala eta guztiz ere, Europar Batasunetik diote ez dela interbentziorik aurreikusten Interneten neutraltasuna bermatzeko. Salatzen dute operadoreek zerbitzuari buruzko informazio argiagoa ematera behartuta daudela.

Facebook-ek ere bere telefonoa atera gura omen du

J.B. | ARRASATE

Facebookek iPhone eta iPad gailuen garapenean ibilitako ingeniariak kontratatu dituela jakin da berriki. Albiste horrek Facebookek telefonia mugikorrean jarduteko nahia asmo hutsa baino gehiago dela garbi utzi dute.

Burtsan atera berritan, negozio berrietan sartzeko urratsak ematen dabil abiada bizian Mark Zuckerbergen konpainia baina baliteke akziodunei begirako urratsa ere izatea, inbertsioak erakarrir guran.

Alor horretan inguruko konpainiek ere antzerako operazioak egin dituzte eta Google-ek, bere aldetik, Motorola erosi du.

Estrategia baliteke izatea telefono propioarekin sistema eragile erraz eta "sozial" bat atera ahal izatea. Aurretik HTC konpainiarekin ere horretan ibilia da Facebook. Bestelako esamesek diote RIM, BlackBerryren konpainia, erostekotan dela sare sozialik ezagunenaren konpainia urrats definitibo moduan.

Bezero galera dakarkio Telefonicari subentzio ezak

J.B. | ARRASATE

Mobilak subentzionaetzeari utzi zion Telefonica konpainiak joandako abenduan eta Telekomunikazioen Merkaturako Batzordearen arabera, ordutik martxo amaierara arte 930.076 bezero galdu ditu. Telefonicatik erantzun dute bezeroen beherakada hori datorrela jarduerari irizpide selektiboagoak ezarri dizkiotako eta horren barruan bi milioi linearen bajak ere egon direla. Hala ere, Telefonica izan da operadore bakarra ia denbora tarte horretan bezeroak galdu dituen. Operadore birtualek, esate baterako, gora egin dute bezero kopuruan: Vodafonek 28.610 bezero berri, Orangek 29.520 eta Yoigok 5.870, esate baterako. Testuinguru orokorrako batean gainera, Telefonican bestelako beherakadek ere arrasto nabaria utzi dute, krisak latz kolpatu baitu Espainiako konpainia. Balantzeari aurre egiteko, Telefonicak bere akzioak burtsara atera behar izan ditu Alemania eta Latinoamerikan, bereziki, Txile eta Argentinan.

"Double check" delakoari buruzko azalpenak eman behar izan dituzte WhatsApp-ekoek azkenean

J.B. | ARRASATE

Mezularitza sistemak mezua bidalia eta jaso dela erakusteko konfirmazio ikurrak erabiltzen ditu. Erabiltzaile askok uste dute bigarren "check" ikonoarekin hartzaileak mezua irakurri duela adierazten dela. WhatsApp-etik azalpenak eman behar izan dituzte ohiko gaizki-ulerteru horren aurrean, "doble check" delakoaren ez baita adierazten mezua irakurria izan dela, baizik eta hartzailearen telefonoak mezua jaso duela.

Polemika eta gaizkiulertu ugari eragin ditu aplikazioa bidalitako mezuaren ostean

erakusten dituen ikur berde txiki horiek.

Azalpen ofiziala

Twitter bidez eman dute azalpen ofiziala WhatsApp-ekoek nahiz eta euren webgunean bertan azalpenak aspalditik agertzen diren. Lehen "check"-arekin mezua bidaltzailearen gailutik atera dela adierazten da eta "double check" agertzerakoan, hau da, ikur berdea birritan, hartzaileak bere gailuan mezua jaso duela adierazten da baina ez irakurri egin duela, askoren ustearen aurka. Polemika argitu dute hortaz.



Mezua eta "double check" hori adierazten duten ikurrak. | ATD

Windows 8ren azken bertsioaren proba, kalean

J.B. | ARRASATE

Barikutik dago eskuragarri Windows sistema eragilearen bertsio berriaren probatarako bertsioa, Windows 8 Release Preview izenarekin. Probatarako bertsioa da, erabiltzaileek probatu eta iritziak eman ditzaten.

Baldintza teknikoak

Windowsetik zehaztu dutenez, bertsio hori instalatzeko beharrezkoa izango da 1 GHz-ko Intel ala AMD prozesatzailea izatea, 1GBeko RAM memoria eta 16 eta 32 GB disko gogorra, bit bertsioaren arabera (32 ala 64).

Pantailari dagokionez, 1024x768ko erresoluzioa behar da Windows Store-erako eta 1336x768koa Metro delako sisteman aplikazioak erabiltzeko. Gutxieneko eskakizun teknikoek begiratu, ematen duenez Windows 7a instalatzeko behar diren horien oso antzerakoak direla bertsio berriari. Windows Vista ala Windows 7ko instalatzaile baten bitartez burutu daitezke instalazio osoa.


Twitter-ek erabiltzaileen pribatutasunaren alde egindakoak nabarmendu dituzte

J.B. | ARRASATE

Electronic Frontier Foundation zaintzarako erakundeak konpainia nagusien pribatutasunerako arduraz aztertu du Estatu Batuetan. Sailkapena egin eta maila gorenean Twitter sare soziala geratu da pribatutasunari dion begirunearengatik. Zerrendaren postu txarretan, ostera, oso konpainia ezagun

eta zabalduak geratu dira: Microsoft, Apple eta Amazon

Sailkapenerako aztertu dute Gobernuak eskatuta zein konpainiak ematen dituen erabiltzaileen datuak, eskaera horiei buruz zeintzuk informatzen duten eta erabiltzaileen pribatutasuna babesteko helburuarekin zeintzuk jo duten epaitegietara, esate baterako.



GENBETA

iOS 6-rako mapa berriak

Apple-en sistema eragilearen bertsio berriarekin mapak agertzeko modu berria etorriko dela iragarri dute. Ezer ofizialik ez dago oraindik baina esames guztien arabera, sarean azaleratutako goiko irudien tankera hartuko dute mapek 3Dko bistaratzearekin. Ematen du aste bi barru aurkeztuko duela Apple-ek sistema eragile berria, iOS 6.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Txistuak eta txistulariak

Ditugun arazoak nahi-koak izango ez balira bezala, arazorik ez dagoen tokitik egundoko liskarra sortzen saiatu dira zenbait agintari eta komunikabide. Zer dela eta? Pertsona batzuk txistu egin nahi zutelako. Isiltasuna behar den antzoki edo ekitaldi batean? Ez! Futbol partidu batean! Errege kopako finalean, hain zuzen.

Eta txistulari aritze soilagatik partida bertan behera uzteko ere eskatu zuen Madrilko erkidego autonomoko presidenteari. Errotu egin al gara?

Txistulariak izango ditu bere arrazoiak txistuari eragiteko, batzuk ados egongo dira (arrazoi osoz) beste batzuk kontra (arrazoi osoz ere), baina goiko ezpainak eta beheko ezpainak -eta ez espainia- era estrategikoan kokatzea eta airea jaurtitzea delitutzat jotzea grabea da gero! Eskerrak, azkenean, ezerezean geratu den kontua, hori bai, TVEk (Televisión Española) txistuen audioa manipulatu. Han entzun ziren txistuek ez zuten zeri-kusirik izan telebista kate publikoak aditza eman zituenarekin. Orain, azal dezatela zergatik.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 4



Errugbi txapelketa

Harmailatik saioan asteburuan Arrasaten jokatu den Nazioarteko Errugbi Txapelketaz arituko gara. | 21:28


MARTITZENA, 5



Ttak gazte taldea

Euskarari bultzada emateko sortu den gazte taldearen berri emango dizuegu *Magazinean*. | 20:15

EGUAZTENA, 6



Ekonomia gurean

Aste honetako *Tertulia* saioan ekonomia-ekin erlazioaturiko gai ezberdinak landuko ditugu. | 22:32

EGUENA, 7



Dantza jaialdia

Ezpalak nazioarteko dantza jaialdiaren berri emango dizuegu *Gipuzkoa Kultura* saioan. | 22:18

EGUBAKOITZA, 8



'AsteON' saioa

Argiteria publikoa aurrezteko Udalen erabakien gaineko erreportajea erakutsiko dugu. | 21:41

- 12:30 Magazinea
- 13:30 Zorion agurrak
- 13:35 Onein: Txangurro krepa
- 14:05 AsteON
- 14:40 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Ur eta lur
- 15:40 Erreportajea: Tolosa 14
- 16:05 Altxor txokoa
- 16:38 Zorion agurrak
- 16:43 Berriak
- 17:03 Eguraldia
- 17:08 Ur eta lur
- 17:40 Onein: Tomate beteak
- 18:05 Berbaz
- 19:10 AsteON
- 19:45 Zorion agurrak
- 19:50 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:13 Magazinea
- 20:58 Berriak
- 21:23 Eguraldia
- 21:28 Harmailatik
- 22:13 Magazinea
- 22:58 Harmailatik
- 23:43 Berriak
- 00:08 Eguraldia

- 12:30 Magazinea
- 13:25 Zorion agurrak
- 13:30 Harmailatik
- 14:15 AsteON
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Harmailatik
- 15:55 Onein: Tomate beteak
- 16:20 Altxor txokoa
- 16:53 Berriak
- 17:18 Eguraldia
- 17:21 Bizitegia
- 17:51 Harmailatik
- 18:37 Erreportajea: Tolosa 14
- 19:02 Hamaika.bit
- 19:32 Ikusmira: Azaro Fundazioa
- 19:47 Zorion agurrak
- 19:52 Berriak
- 20:12 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Zorion agurrak
- 21:05 Berriak
- 21:25 Eguraldia
- 21:30 Harira
- 22:00 AsteON
- 22:30 Magazinea
- 23:15 Jokoz mintzo: 4x4 trial
- 00:01 Berriak
- 00:26 Eguraldia

- 12:15 Magazinea
- 13:00 Zorion agurrak
- 13:05 Harira
- 13:40 Beranduegi.tv
- 13:55 Jokoz mintzo: 4x4 trial
- 14:41 Zorion agurrak
- 14:48 Berriak
- 15:08 Eguraldia
- 15:13 Gipuzkoa Kultura
- 15:43 Onein
- 16:17 Jaiak: Pentekoste jaiak
- 16:57 Berriak
- 17:17 Eguraldia
- 17:20 Harmailatik
- 18:03 Ekogune
- 18:33 Gipuzkoa Kultura
- 19:03 Beranduegi.tv
- 19:18 Harira
- 19:48 Zorion agurrak
- 19:52 Berriak
- 20:12 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 20:53 Lehiaketa
- 21:01 Berriak
- 21:21 Eguraldia
- 21:24 Magazinea
- 22:02 Ekogune
- 22:32 Tertulia
- 23:32 Berriak
- 23:57 Eguraldia

- 12:25 Magazinea
- 13:10 Zorion agurrak
- 13:15 Ekogune
- 13:45 Tertulia
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:10 Hamaika.bit
- 15:40 Jokoz mintzo: 4x4 trial
- 16:26 Erreportajea
- 16:54 Berriak
- 17:27 Eguraldia
- 17:30 Tertulia
- 18:30 Ur eta lur
- 19:02 Ekogune
- 19:37 Planik bai?
- 19:57 Berriak
- 20:17 Eguraldia
- 20:20 Magazinea
- 21:00 Planik bai?
- 21:20 Berriak
- 21:45 Eguraldia
- 21:48 Hamaika.bit
- 22:18 Gipuzkoa Kultura
- 22:48 Planik bai?
- 23:08 Magazinea
- 23:53 Berriak
- 00:18 Eguraldia
- 00:23 Planik bai?

- 12:30 Magazinea
- 13:15 Zorion agurrak
- 13:20 Gipuzkoa Kultura
- 13:50 Onein: Pitxioa
- 14:13 Beranduegi.tv
- 14:28 Planik bai?
- 14:48 Berriak
- 15:08 Eguraldia
- 15:13 Planik bai?
- 15:23 Bizitegia
- 15:53 Berbaz
- 16:53 Berriak
- 17:13 Eguraldia
- 17:18 Planik bai?
- 17:38 28. Klip
- 18:02 Harira
- 18:32 Ekogune
- 19:02 Beranduegi.tv
- 19:21 Walker: Amezketak
- 19:56 Zorion agurrak
- 20:01 Berriak
- 20:21 Eguraldia
- 20:26 Planik bai?
- 20:46 Harira
- 21:16 Berriak
- 21:36 Eguraldia
- 21:41 AsteON
- 22:11 Berriak
- 22:31 Eguraldia
- 22:34 Planik bai?
- 22:44 Walker: Amezketak
- 23:19 AsteON
- 23:49 Planik bai?
- 00:09 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Kantu herrikoiak entzuteko sarrerak zozketan

Goikobalu Txiki eta Gazte, El Incarnatus ganbara orkestra, Eñaut Elorrieta, Amaran Alabak eta Baigorriko gaiteroak betiko kantu herrikoiak eta kantagintza berrikoak eskainiko dituzte egubakoitzean Amaia antzokian. Sarrerak lortu nahi badituzu, parte hartu zozketan!

San Juan jaietako egitaraua eta xehetasunak

Urte honetako San Juanetako jaiak gero eta hurbilago daude. Hori dela eta, jaien egitaraua ezagutaraziko dizuegu entzuleoi. Dagoeneko Udalak ia prest du aurten herriko jai nagusietako egitaraua zabaldu eta xehetasun guztiak kontatuko dizkigute Arrasate Irratian.

Basque Culinary Center-en udaleku gastronomikoak

Basque Culinary Center-ek Hazi korporazioarekin lankidetzan antolatu dituen udaleku gastronomikoei buruzko xehetasun jarbun dugu aste honetan 107.7an. Aitzol Zugazti Basque Culinary Centerreko irakaslea eta chefak azalduko digu jardunaldien nondik norakoak eta beraien asmoak.

TELE-ALBISTEAK

Klima aldaketaren eragina aztergai 'Ekogune' saioan

Eguaztenan, 22:03ean, klima aldaketak gure ingurunean dituen eraginak aztertuko ditugu

AKETZ ZUBIA | ARRASATE
Aste honetako *Ekogune* saioan dagoeneko ezaguna den klima aldaketaren eraginaren inguruan jardungo dugu. Izan ere, gure ingurumenean ondorio nabarmenak sortu ditzazke klima aldaketa.

Plan Berdeari dagokionez, Oñatiko Arrikruz kobak eza-gutzerara eramango zaituztegu. Horrez gain, ohiko errezeta ere ez da faltako.



Oñatiko Arrikruz kobak. | BLOGAK.COM

'Harira' saioan Mikel Arana legebiltzarkidea elkarrizketatuko dute

Ezker Anitzako legebiltzarkide ordiziarra elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak

A.Z. | ARRASATE

Aste honetan, martitzenean, Mikel Arana Ezker Anitzako legebiltzarkidea gonbidatzen dugu 'Harira' izeneko saiora.

Berarekin lasai eta sakon hitz egingo dugu. Gaurkotasun politikoaren gainean eta Legebiltzarreko jardunaz arituko da politikari ordiziarra. Horrez gain, bakearen gaineko ponentzia, ekonomia krisia, edo hauteskundeak eta bestelako gaiak jorratuko dituzte legebiltzarkideak eta Eneko Azkarate aurkezleak. Esan bezala, guzti hau, martitzenean 21:30ean.



Mikel Arana legebiltzarkidea. | GOIENA

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Arkaitz Kerejeta Abril
Ekainaren 10ean, 9 urte.
Zorionak, txapeldun!
Zure aita-amaren eta
Ainhitzeren partetik.



OÑATI
Irene Aranburu
Onaindia
Ekainaren 9an, 3 urte.
Zorionak, printzesa, eta
muxu handi bat etxekoan
eta Enekoren partetik.



ARETXABALETA
Ariane Bartolome
Alvarez
Ekainaren 9an, 3 urte.
Zorionak eta patxo
handia etxekoan
partetik.



ARAMAIO
Ester Unzueta Jauregi
Ekainaren 7an,
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoan partetik muxu
erraldoi bat!



ESKORIATZA
Lur Arana
Ekainaren 7an, 33 urte.
Zorionak, aitaxo!
Ondo-ondo ospatu zure
urtebetetze eguna eta
milaka patxo Unai eta
amatxoren partetik!



OÑATI
Nahia Guridi
Ekainaren 6an, 8 urte.
Zorionak, printzesa!



ESKORIATZA
Amaia Iszelaia Inza
Ekainaren 6an, 32 urte. Zorionak, neskato! Muxu handi
bat zuretako.



ARRASATE
Alaitz Bergaretxe
Aldazabal
Ekainaren 6an, 6 urte.
Zorionak etxeko eta
famiako danon partetik.



BERGARA
Paule Kalboetxeaga Arriaran
Ekainaren 6an, 5 urte. Zorionak, politxo! Muxu handi
bat etxekuen partetik eta beste bat tia Amaia eta tio
Roberren partetik!



ESKORIATZA
Maialen Apraiz Ansola
Ekainaren 6an, 5 urte.
Zorionak, Maialen! Ondo
pasatu zure
urtebetetzean. Musu
handi-handi bat amatxo
eta guztien partetik.



ARAMAIO
Unai Ormaetxea
Arriaran
Ekainaren 5ean, 4 urte.
Zorionak, pirata!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetzean eta ea
opari asko jasoten
dozun! Zorionak danon,
eta bereziki, Manexen
partetik!



BERGARA
Peru Montalvo Ruiz de
Egino
Ekainaren 4an, 2 urte.
Zorionak, Peru! Zenbat
kandela jarriko dizkiogu
pastelari? Bi! Patxo
handi bat Uxue, amatxo
eta aitaxoren partetik.



ESKORIATZA
Mikel Perez Esnal
Ekainaren 4an, 3 urte. Zorionak, Mikel! Ondo pasatu
zure urtebetetzean eta muxu potolo-potoloa familia
guztiaren partetik.



OÑATI
Ainhoa Inza
Ekainaren 4an, 32 urte.
Zorionak, Ainho! Egun
ona pasatu eta ederto
ospatu. Muxu potolo bat
zure etxeko danen
partetik. Bereziki Unax,
Eneko, Uxue eta Elaiaren
izenen.



OÑATI
Miren Astudillo Diaz
Ekainaren 3an, 12 urte. Zorionak, printzesa! Muxu
handi bat etxekoan partetik.



OÑATI
Imanol Astudillo Diaz
Ekainaren 3an, 12 urte. Zorionak, *guapeton!* Muxu
handi bat etxekoan partetik.




ARRASATE
Leire Agirre Leibar
Ekainaren 2an, 11 urte. Gure etxeko "printzesa" txikiak
hamaika urte betetzen ditu. Zorionak eta ondo ospatu
eguna etxekoan guztien partetik.



ESKORIATZA
Enara eta Olatz Urrutia Lasagabaster
Zorionak, printzesak! Ondo pasatu zuen urtebetetze
egunean. Enarak bost urte ekainaren 1ean eta Olatzek
urtebete ekainaren 4an. Muxu handi bat. Aitaxo eta
amatxo.




BERGARA
Lander Alzola
Altzerreka
Ekainaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, Lander!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze egunian eta
muxu handi bat familia
guztiaren partetik!



OÑATI
Lukén Beltrán de
Guevara de Miguel
Ekainaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, deabrutxo!
Muxu handi bat familia
guztiaren partetik!



ARETXABALETA
Naiara Gutierrez Olave
Maiatzaren 31n, 2 urte.
Zorionak eta patxo handi
bat etxeko danen eta
bereziki Julenen
partetik.



ARETXABALETA
Aimar Basabe Arkauz
Maiatzaren 30ean, 4
urte. Zorionak,
txapeldun! Gure
konkistatzaileak lau,
sardina bakalau! Urte
askotarako. Xarbema.




OÑATI
Andrea Zamakola
Contreras
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Zorionak, politta! Ondo
pasatu zure urtebetetze
egunean eta muxu handi
bat etxekoan partetik.
Muak!



ARETXABALETA
Irene Agirre
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Zorionak eta ondo
pasatu.



OÑATI
Jon Altube
Maiatzaren 29an, 32 urte.
Zorionak, aitaxo!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze egunean eta
muxu goxo-goxoak amatxo
eta batez ere Lexuriren
partetik. Askok maite
zaitugu. Aupa, aitaxo!



OÑATI
Paula Zelaia
Maiatzaren 29an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu
eguna eta muxu potolo
bat!



ARETXABALETA
Lorea Belategi
Martinez
Maiatzaren 28an, 7 urte.
Zorionak, politori!
Dagoeneko nagusia zara,
zazpi urte eder bete dituzu.
Espero primeran pasatu
izana eta txokolatada
noiz? Muxu handi bat
etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Beñat Martiarena
Elices
Maiatzaren 27an, 9 urte.
Zorionak, Beñat!
Oso-oso ondo pasatu
zure egunean.
Marrubizko muxutxuak.
Aitaxo, amatxo eta
Maria..

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

JAIOTAKOAK



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Galder Fdez de Arroibe Garcia**

Arrasate, 3,330 kilo. Maiatzaren 24a. Gurasoak: Naiara eta Iban. Argazkian, Bere lehengusu Anartz eta Jonekin.

**June Leibar Belinchon**

Arrasate, 3,890 kilo. Maiatzaren 25a. Gurasoak: Segriz eta Iker. Argazkian, June aitarekin.

**Araitz Pagaldai Atxa**

Aretxabaleta, 3,940 kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Olatz eta Asier. Argazkian, Araitz aita eta amarekin.

**Markel Kortajarena Alonso**

Elgeta, 3 kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Kristina eta Jon. Argazkian, Markel aita eta amarekin.

**Danel Lopez Gil**

Bergara, 3,700 kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Flor eta Carlos. Argazkian, Danel sehaskan lo.

**David Casillas Fortuna**

Bergara, 3,420 kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Vero eta David. Argazkian, David guraso eta arreba Laiarekin.

**Izadi Peñalba Escobar**

Antzuola, 3,520 kilo. Maiatzaren 30a. Gurasoak: Jessica eta Jabi. Argazkian, Izadi aita eta amarekin.

**Narora Iturria Agirre**

Elorrio, 2,980 kilo. Maiatzaren 29a. Gurasoak: Nagore eta Ioseba. Argazkian, Narora gurasoekin.

**Aiur Blanco Hernando**

Arrasate, 3,670 kilo. Maiatzaren 30a. Gurasoak: Izaskun eta Eneko. Argazkian, Aiur sehaskan lo.

BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86



Jarraitu gaitzazu
Facebooken:
UME ARRASATE



Kontuz, ipotx zombiak lorategian!

Kolore biziak, usain ederra, apaingarri landuak... Zure lorategiak horiek baditu, akaso ipotx hauek lekuz kanpo egongo daitezke.
www.nopuedocreer.com



"Artean milioiduna naizen arren, ez da horrela likidezian"

CARMEN CERVERA | THYSEN BAROISA

Nork esaten du aberatsek eta famatuek ez dutela krisiaren eraginik nabaritzen? Tita gaixoa: bizi osoa lan eta lan etxea eta museoak koadroz betetzeko, eta gero ogia ordaintzeko, zentimorik ez... Suminduen artean aurkituko al dugu hurrengoan?
www.20minutos.es



Max. 20°

Min. 14°

Astlehenean eguraldi ona espero da berriro. Tenperaturak gora egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-06-04

HAMARREKOA

Elena Irureta Euskal Telebistako telesail arrakastatsu gehienetan ikusi dugu, baita Estatuko hainbatetan ere. Zumaiarrak, baina, ibilbide luzea du pantaila txikitik haratago. | TXOMIN MADINA

"Duela ia hogeituz hamar urte bezain txoro eta alfer aurkitu dut Idoia"

1. Ia hogeituz hamar urte pasatu eta gero berriro topo egitean, nola aurkitu duzu Idoia?

Idoia beti bezain txoro eta alfer aurkitu dut. Zaharragoa izateak ez du esan nahi argiagoa izango denik.

2. Zergatik itzuli da Bi eta bat?

Egia esan, nire iloba Telmori bururatu zitzaion eta beste guztiok kasu egin geniolako.

3. Zenbat aldiz galdetu dizute Jose Ramon Soroz eta biok senar-emazteak zareten?

Nahiz eta etengabe gure pertsonalitate eta seme-alabak aldatu, jendeak senar-emaztetzat hartu gaitu eta ez du inork inoiz ezer galdetu. Gu beti ondo konpondu izan gara eta elkarrekin jarraitzen dugu, ikusten duzuen moduan. Hau da hau marka!

4. Proiektu bati baiezkua edo ezezkoa emateko orduan, zerk du pisu handien?

Nik uste dut eroso samar sentitu behar zarela egiten ari zarenekin; izan ere, horrela ez bada, hobe ez hastea!

5. Denborarekin, selektiboagoa bihurtzen da bat?

Denborarekin... lanean jarraitu beharra dago; beraz, dagoenari heldu behar zaio eta ahal dena atera. Ez dago besterik. Akaso, lan asko eskaintzen badizute selektiboago izateko aukera izango duzu, baina ez da nire kasua.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Orduan kontuak"

"Makilatxo magikoa, e? Kontuz gero, ze egun osoa makila eskuan izango bainuke, eta... orduan kontuak!"

6. Espainiako telesailetan maiz ikusi zaitugu. Han eta hemen lan egitearen alderik handiena?

Alde handiena da hemen lanera joateko ordu erdi behar dudala, eta Madrilerantz, bost! A, eta hemen ez duzula jendea egunero musukatu behar! Alde ederra!

7. Bollain, Medem... Zerrendari zein gehitzea gustatuko litzaizuke?

Zuzendariak ez du ezaguna izan behar ni gustura aritzeko. Gustatuko litzaizukeena da jende jatorrarekin eta giro majoan lanean jarraitzea. Eta, egia esan, orain arte ez dut kezarik izan.

8. Aurrez Madrilen edo Londresen bizi izan ez bazina, aktore izango zinateke?

Egunero eta konturatu gabe erabaki pila bat hartzen dituzu eta erabaki horiek hara eta hona eramaten zaituzte. Hau edo bestea egin izan ez banu... auskalo!

9. 80ko hamarkadan hasi zintenenok zein punturaino sentitzen zarete euskal aktoreen aitzindari?

Ez naiz inoiz inoren aitzindari sentitu. Gure aurretik beste asko pasatu dira. Zumaian, esaterako, gure aitaren garaian baziren bi antzerki talde, eta orain, berri...

10. Asko dira betetzeko dituzun ametsak?

Nire ametsak ez dute zerikusirik handirik aktore lanarekin; baina bai, gauza asko ditut oraindik egin ez ditudanak eta egitea gustatuko litzaizkidakeenak.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Erradiografia

Bost milioi eta erdi langabe; lan-erforma gordin-gordin bat egin eta urtetan apurka-apurka metatutako lan-erakundeak txakurraren salara bialduta; osasun eta irakaskuntza publikoan 2012-rako aurrekontuetan egingako kenketei 10 mila milioi-koa erantsi izana apirilean... Non geratu dira osasuneko eta irakaskuntzako premien edota kalitatezko arretaren ezaugarriak?

Banku eta kaxak zorpetze librea ibili dira; orain ere ez daude geldirik, ez; orain, baina, zuloa, gezurrik gezur, estali ezinik dabilta. Bankiarena da adibide mingarriena: 2011ren bukaeran 300 milioi-ko irabazia omen zuten; orain megazuloa zenbatekoa den argitzeko ere ez da gauza: 4 mila milioi-koa da? 14koa? 24koa?

Horixe da Espainiaren erradiografia laburra une honetan.

Eta zer diote agintariek? Zertan ari dira? Zorakeria horren guztia arduradunei kargu hartzeko asmorik badute? Zer dio, esaterako, Madrileko Erkideburu eta PPko artaburu den Aguirre andreak?

Aguirre andreaken kezka Errege-Kopako futbol-finaleko partidaren estadio osoak-edo Espainiako himnoari pitoa jo izana da.

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta berria irekiko du:

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Esan baietz betiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko